

---

indarrak batuz indarkeria matxisten kontra  
**EMAKUME UGARI BORTOKALARI**

---

**ETENIK EZ DUEN PROZESU BATEN IKASPENAK**




## Argitaratzailea:



**MUGARIK GABE**  
Organización No Gubernamental de Cooperación  
para un Desarrollo Humano, Equitativo y Sostenible  
Declarada de Utilidad Pública

[www.mugarikgabe.org](http://www.mugarikgabe.org)

 Mugarik Gabe

 @mugarikgabe

## BIZKAIA

Mugarik Gabe  
Grupo Vicente Garamendi 5, lonja - 48006 Bilbao  
94.415.43.07 | [bilbao@mugarikgabe.org](mailto:bilbao@mugarikgabe.org)

## GIPUZKOA

Mugarik Gabe  
Katalina Elizegi 46, bajo Puerta 3 - 20009 Donostia  
943.445.977 | [gipuzkoa@mugarikgabe.org](mailto:gipuzkoa@mugarikgabe.org)

## ARABA

Mugarik Gabe  
Casa de asociaciones "Itziar" Pza. Zalburu s/n  
01003 Vitoria-Gasteiz  
945.277.385 | [araba@mugarikgabe.org](mailto:araba@mugarikgabe.org)

## Entitate laguntzaileak:



## Finantzazioa:



Bilbo, 2015eko abuztua

**Diseinua:** Patirke Belaza

**Maketazioa:** Binari Comunicación



## Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Internazionala (CC BY-NC-ND 4.0)

Dokumentu hau Creative Commons lizentziapean dago. Edukia libreki zabaltzea, kopiatzea eta birbanatzea baimentzen da edozein bitarteko edo formatutan, beti ere, egiletasuna aitortzen bada. Ezin da erabili xede komertzialarekin, nahastu edo eraldatu egiten bada edo materiala oinarri hartuta sortu egiten bada, ezin da eraldatutako materialik hedatu, ezin da lizentziak baimentzen duena legalki burutzea mugatzen duen neurri teknologikorik edo legezko akaberarik erabili.

**Lizentzia osatua:** [http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es\\_ES](http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es_ES)

# Aurkibidea

Sarrera .....	4
<b>I. KAPITULUA: LURRALDEKAKO TOPAKETEN KORAPILOAK ETA ESTRATEGIAK .....</b>	<b>8</b>
KORAPILOAK.....	8
- Salaketa eta mobilizazio soziala .....	8
- Indarkeriaren prebentzioa .....	10
- Arreta eta tratamendua.....	13
-Esparru Juridikoa.....	17
ESTRATEGIAK .....	21
- Eragite-politiko.....	21
- Hezkuntza eta prebentzioa.....	25
- Arreta eta tratamendua.....	27
- Esparru Juridikoa.....	29
<b>II. KAPITULUA: EMAKUME UGARI BORROKALARI. INDARRAK BATUZ INDARKERIA MATXISTEN AURKA.....</b>	<b>31</b>
DIAGNOSTIKOAN SAKONTZEN .....	32
- Esparru Legegilea eta Juridikoa.....	32
- Arreta eta Tratamendu esparrua .....	37
- Hezkuntza Esparrua.....	38
INDARKERIA MATXISTEN AURKAKO ESTRATEGIAK EZAGUTZEN .....	41
- Esku-hartze sozial eta juridikorako estrategiak. Ekimenen azterketa.....	42
- Bizirik atera diren emakumeak indarkeriaren aurkako borrokan subjektu aktibo ...	42
- Indarkeria matxisten aurkako Erantzun eta Erresistentzia Sarea (RRR).....	44
- Ibilbide Judizialetan ahalduntzen.....	46
- Istanbuleko Hitzarmenean sakontzen eragite-politikorako lanabes bezala .....	49
- Prebentziorako eta eragite-politikorako estrategiak. Ekimenen azterketa .....	49
- Indarkeriaren tratamendurako protokoloen ezarpena komunikabideetan.....	50
- Mobilizazioa: Indarkerien aurkako martxa .....	51
- Emakumeen Mundu Martxa nazioarteko sare bezala eta ekinbiderako protokoloak Euskal Herrian.....	53
- Sare sozialen erabilpena salaketa eta eragiterako tresna bezala.....	54
- Feminizidioen kartografiak, gizarte zibilak instituzio publikoen jarraipen eta kontrola egiteko tresna .....	54
<b>III. KAPITULUA: AURRERA EGITEN JARRAITZEN DUGU.....</b>	<b>55</b>
EMAKUME UGARI BORROKOLARI.....	56



## Abiapuntua

Sarea josten<sup>1</sup> emakumeen eskubideak defendatu eta indarkeria matxistak desagerrarazteko ekimena Mugarik Gabe 2010 urtean abiatutako Indarkeria Matxistei aurre egiten diegu, Patriarkaturik Gabe denok Jabe<sup>2</sup> kanpainaren testuinguruan kokatzen da. Indarkeria matxista guztiak ikuspegi orokor eta egiturazko batekin -sistema patriarkalaren iraunaldiaren ondoriozkoa dena- borrokatzea zen kanpaina honen helburua. Orduan egin genuen apustua jendartearen sentsibilizatzeko ikuspegi hezitzaile batekin abiatu genuen, aurrera egin ahala, mundu guztiko emakumeen giza-eskubideen urraketa sistematikoa salatzerako pasatuz eragite politikorako estrategia bat garatzeko beste mugimendu sozialekin batera eta mugimendu feminista aliatu nagusi bezala hartuta. Ahalegin honetan egindako azken ekimen ikusgarria 2013ko ekainean Bilbon egin zen *Emakumeen Giza-eskubideen Nazioarteko Auzitegia. Euskal Herria 2013, Viena +20<sup>o</sup>* ekimena izan zen. Hala Auzitegia bera, nola proposatu ziren eragiteko bestelako ekintzek agerian utzi zuten Estatuan, Euskal Herrian zein munduko beste leku batzuetan indarkeria hauen egungo egoera salatzeko estrategiak aztertu eta indartu egin behar zirela, bai eta hauek berrikusteko eta birdefinitzeko beharra zegoela ere proposamen berriak egitearekin batera.

Testuinguru honetan sortu zen Herritartasun Aktiboaren Programa lantzeko aukera. Programa honen bidez, indarkeria matxista desagerrarazteko antzeko moldeetan lan egiten duten Estatuko beste erakundeekin batera sarea lan egitea proposatu zen, eragite handiagoa erdiesteko azterketak, estrategiak eta elkarrekin lan egiteko aukerak partekatzeke.



1 [www.mugarikgabe.org/rederradicacionviolenciasmachistas](http://www.mugarikgabe.org/rederradicacionviolenciasmachistas)

2 [www.mugarikgabe.org/blog/2012/12/01/enfrentamos-todas-las-violencias-machistas](http://www.mugarikgabe.org/blog/2012/12/01/enfrentamos-todas-las-violencias-machistas)

3 <http://tribunalderechosmujeres2013.blogspot.com.es>

Landuko dituen arlo nagusien bidez, Herritartasun Aktiborako Programak jendarte zibila laguntzeko helburua du: demokrazia, giza-eskubideak, diskriminaziorik eza, gobernu ona eta gardentasuna, arrazakeriaren, xenofobiaren, desberdintasun sozialen, pobrezia-  
ren eta bazterketaren aurkako borroka, bai eta GKE txikien oinarritzko ekimenak, pareki-  
detasuna eta genero indarkeria ere. Hiru eragileren elkarlanean oinarritutako ekimena  
da Programa hau: Europako Ekonomia Espazioaren Finantza Mekanismoa (finantzatzai-  
lea), Espainiako Gobernua (finantzazioan laguntzailea) eta Ekimen Sozialerako Gobernu-  
Kanpoko Erakundearen Plataforma (eragilea). Programa honen erronka nagusiak demo-  
krazia parte-hartzailea, giza-eskubideen sustapena eta inklusio soziala dira.

Sarea Josten emakumeen eskubideak defendatu eta indarkeria matxistak desagerraraz-  
teko ekimenak bi helburu nagusi ditu:

- Indarkeria Matxisten gaineko eragite-politikorako estrategien elkartruke eta azter-  
ketarako espazioak sortzea. Lau lurralde-espazioetan zehaztu da ekimena (Bilbo/  
Gasteiz, Katalunia, Madril eta Andaluzia), bai eta espazio orokor batean ere (Bilbon).
- Eragiteko agenda eta balizko ekimen komunak zehazteko kolektiboen arteko arti-  
kulazioa indartzea lurraldeko edo/eta Estatu mailan. Topaketek eurek -lurraldeen  
arteko desorekekin bada ere- mugimendu feministaren, GGKE-en, sare ezberdi-  
nen, jendarte-ekintzarako erakundeen, zein bestelako mugimendu sozialen zein  
instituzio publikoen arteko elkartrukea eta aliantza ahalbidetuko dute. Helburua  
ekainean egin genuen topaketan zenbait adostasun edo eta eztabaidarako propo-  
samen era kolektibo batean mahai-gaineratzen hastea izan da, Indarkeria Matxis-  
ten aurkako eragite-politikorako ekintzak jasoko dituen agenda bat -edo antzeko  
planifikazio bat- osatu ahal izateko.

Testuinguru honetan Málagako CEIM (Emakumeen gaineko ikasketa eta ikerketa Zen-  
troa<sup>4</sup> erakundearekin, Bartzelonako Cooperaccio<sup>5</sup>-rekin eta Madrileko MZD (Emakumeak  
Gatazka Gunean<sup>6</sup>) ekimenekin ari gara lanean gai hau indartu, aztertu eta estatu mailako  
sare baten osaketarako aldagaiak baloratzeko. Erakunde hauetako bakoitzak euren lu-  
rraldeko lana koordinatu du.

## Lurraldekako topaketak

2014ko urria eta 2015eko ekaina bitartean lau lurralde-topaketa egin dira: Euskal Herria  
(Bilbo eta Gasteiz), Katalunia (Bartzelona), Madrilgo Komunitatea (Madril) eta Andaluzia  
(Malaga). Topaketa hauetan mugimendu sozialek, feministek, instituzioetako teknikariek,  
indarkeria matxisten esparruan lan egiten duten profesionalek, erakunde sozialek zein  
GKEE-ek parte hartu dute. Topaketetan indarkeria matxisten egoera aztertu eta informa-  
zioa partekatu da arreta eta tratamenduaren esparruan, hezkuntza eta prebentzioare-  
nean, esparru legegilean, eragite politikoarenean zein salaketa eta mobilizazio sozialaren  
esparruan ditugun zailtasun nagusien diagnostiko bateratu bat egiteko helburuarekin.  
Era berean, hobekuntzarako zein eragite bateratu baterako lehen balizko proposamenak  
mahai-gaineratu dira (salaketak, elkartrukea, artikulazioa...).

<sup>4</sup> [www.ceim.eu](http://www.ceim.eu)

<sup>5</sup> [www.cooperaccio.org](http://www.cooperaccio.org)

<sup>6</sup> [www.mzc.es](http://www.mzc.es)



Topaketa hauetan indarkeria matxisten esparruan lan egiten duten erakunde eta profesionalen balorazioak partekatzeko espazio bat sortu nahi izan da, zer eta problematika honen konponbiderako gabeziak eta zailtasunak identifikatzeko eta euren esperientziatik abiatuta egoki ikusten dituzten aldaketarako proposamenak mahai-gaineratzeko, errealitatearen analisia -esku artean ditugun azterketa kuantitatiboez harago- erakunde hauen esperientzia eta eguneroko praktikekin aberastuz.

Zenbait kasutan, topaketa hauek egunerokotasunean elkar ezagutzarako eta hausnarketarako tarte gutxi duten erakunde eta profesionalentzako zaintza, artikulazio eta elkartrukeko espazio bihurtu dira. Espazio hauek bereziki eskertu dituzte egoera ezegonkorretan eta borondate politiko txikiko -eta beraz baliabideak, denbora eta langileak batez ere eskasak eta ez nahikoak diren- testuinguruetan lanean ari direnek.

Parte hartzaileek ez dute behin betiko soluziorik mahai-gaineratzeko asmorik izan -are eta gehiago topaketetara lotu diren taldeen aniztasunaren ondorioz egon diren parte-hartzerako zailtasunak aintzat hartuta-, eztabaidan eta indarkeria matxisten aurkako borrokan aurrera egiten jarraitzeko gure premiazko inplikazioan aurrera egiteko ekarpenak egitea baizik -izan maila globalean zein gertuko testuinguruetan-.

Zentzu horretan, topaketen sistematizazioak<sup>7</sup> egin dira bertan bildutako balorazio, ideia eta proposamenak jaso, eta hausnarketa, elkartrukea, artikulazioen indartzea eta konponbiderako estrategien berrikuspena elikatzen jarraitzeko.



## Emakume ugari borrokalari. Indarrak batuz indarkeria matxisten aurka

Aurretikako lau topaketen ostean azken sistematizazio-topaketa<sup>8</sup> bat egin zen Bilbon 2015eko ekainean. Bertan, eta hainbat lurraldetako emakumeen parte hartzeari esker, aurretik egindako azterketak bateratu, estrategietan sakondu eta etorkizunean egin beharreko lan bateratua baloratu zen. Topaketa honek helburu hauek izan ditu:

- Indarkeria matxisten estatu mailako egoerari buruzko analisi eta diagnostikoan sakontzea esparru legegilean, juridikoan, prebentzioarenean eta eragite politikoaren esparruan.

<sup>7</sup> [www.mugarikgabe.org/rederradicacionviolenciasmachistas/primeros-pasos](http://www.mugarikgabe.org/rederradicacionviolenciasmachistas/primeros-pasos)

<sup>8</sup> <https://vimeo.com/132209812>

- Indarkeriei esparru ezberdinetatik aurre egiteko estrategien gaineko esperientziak partekatzea eta proposamen batzuetan sakontzea.
- Eragite politikoa indartzeko kolektiboen artean aliantzak josteko espazioak sortzea.

Topaketa bi zatitan egituratu zen: publikoari irekitako espazioa bat (zeinetara emakume zein feministen mugimendua, mugimendu sozialak, instituzio publikoak, esku-hartze sozialeko langileak, GGKE-ak, masterrak eta komunikabideak gonbidatu ziren), eta barne mailako hausnarketarako bigarren espazio bat mugimendu feministentzat, mugimendu sozialentzat eta GGKE-entzat.

Hemen aurkezten dugun dokumentua modu honetan egituratzen da:

- I Kapituluak: Lurraldekako Topaketen Korapiloak eta Estrategiak. Atal honetan lurraldekako lau topaketetan egindako azterketa jasotzen da, bai eta azterketa honi azken topaketan egindako ekarpenak ere.
- II. Kapituluak: Emakume ugari borrokalari: indarrak batuz indarkeria matxisten aurka. Azken topaketaren laburpena jasotzen da, diagnostikoan sakonduz eta hainbat estrategietan aurrera eginez.
- III. KAPITULUA: Aurrera egiten jarraitzen dugu
- Konklusioak: Amaierako adierazpena. Prozesuaren emaitza izan den posionamendua jasotzen da.



# I. KAPITULUA: LURRALDEKAKO TOPAKETEN KORAPILOAK ETA ESTRATEGIAK



Lehenago azaldu dugun bezala, diagnostiko hau lurralde ezberdinetan egindako lan kolektiboaren emaitza da.

8 hilabetetan 100 elkarte baino gehiagotako (batez ere elkarte feministak) 200 emakume inguruk parte hartu dute antolatutako lurraldekako lau topaketa hauetan. Topaketa baikoitzak lan egiteko modu ezberdina izan du, tokian-tokiko errealiterata egokitutakoa hain zuzen ere. Hala eta guztiz ere, topaketa bakoitzean egindako azterketak lan-eremuetan banatuta jaso dira (arreta eta tratamendua, hezkuntza eta prebentzioa, esparru juridikoa, eta azkenik eragite-politikoak, salaketa eta mobilizazio soziala) modu honetan estrategia zehatzagoak definitu daitezkeelako.

Lurraldekako topaketetan ateratako edukiak jasotzen dira jarraian, azken topaketan egindako hainbat ekarpenekin aberastua.

## KORAPILOAK

### Salaketa eta mobilizazio soziala

#### Testuingurua

- Indarkeria gai estrategikoa<sup>9</sup> da, ibilbide luzekoa, aurrerapenak ere badituena.
- Orokortutako ezintasun egoera **zigorgabetasunaren eta botere publikoen beharrezko inplikazio eta erantzun faltaren** aurrean, eta aurreiritzi, **estereotipo** (salaketa faltsuak, Alienazio Parentalaren Sindromea, partekatutako custodia...) eta indarkeria matxista **lehen mailako arazo politiko eta sozial** bezala ez ikustearen ondorioz ere. Era berean diskurtso eta kontzeptu feministak bereganatu eta edukiz husteak ezintasun sentimendu orokortu hau sustatzen dute.
- Indarkeria ez da modu global batean aintzat hartzen, arreta bikoteen arteko indarkerian edo feminizidioetan soilik jartzen da. Legeetan eta imaginario sozialean bestelako indarkeria motak ere aintzat hartzea falta da: indarkeria sexualak, prostituzioa eta salerosketa, Mutilazio Genital Femeninoa, indarkeria instituzionala, lan-munduan jazotzen dena... Bai eta errealitate zehatzak eta sailen arteko beharrezko zeharkakotasuna aintzat hartzea ere (emakume migratzaileak, adinekoak, ijitoak....).
- Ez da salatzen indarkeria honen arrazoi estrukturalak **sistema patriarkala eta kultura matxista** direla, ez eta berdintasun ezaren testuinguruak indarkeria mota eta maila ezberdinak eragiten dituela emakumeen kolektiboan.

<sup>9</sup> Sistematizatorako azken topaketan emandako eztabaidetan azpimarratu zen egiturazko berdintasun-gabezia eta berdintasunerako lana ere gai zentralak izan behar direla eta ezin direla indarkeriatik bereizi.





- Indarkeriei aurre egiterako orduan ikuspegi feminista falta da, bai eta **giza-eskubideen** testuinguruan kokatzea ere, emakumeak eskubide osoko subjektu bihurtuko dituen ikuspegia hain zuzen ere.
- Indarkeriaren eta indarkeria egoerei ematen zaien erantzunaren **diagnostiko** argi bat falta da (datu objektiboetan oinarritua eta ez soilik zerbitzuen zenbaketa batean, baizik eta inpaktuarenean ere).
- Herritarren **parte hartzerako espazio feminista** indartsuak eta lotesleak falta dira (egun adibidez, Emakumeen Udal Kontseilu asko erabiltzen dira).

## Legeak

- **Indarkeriaren gaineko araubide zehatzak** eraikitzeke bidean aurrera egin da estatuan, autonomia erkidegoetan eta udaletan. Baina hala eta guztiz ere:
  - o Edukia bikote edo bikotekide ohien testuinguruan ematen den indarkerian kokatzen da.
  - o Kasu gehienetan **adierazpenak** baino ez dira jasotzen, araubide-garapenik gabeak eta beharrezko aurrekontu esleipenik gabeak.
  - o **Gabeziak** daude Legea ezartzerako orduan; nabarmenenak legeak praktikan jarri behar dituzten langileen formazio falta, zerbitzu eta baliabide falta, eta lege hauen eraginaren ebaluazio eta jarraipen falta dira.
  - o Indarkeria sufritu duten **emakumeekiko** instituzioen errespetu falta ematen da Legeen garapenean; legeek eta hauen mekanismoek emakumeak infantilizatzen ditu.
  - o Hezkuntza eta lanaren arloetan oin-puntetan pasa da, nahiz eta Lege Integralen 5 ministerioren inplikazioa jasotzen den.
- Korapilo hauek administrazio ezberdinen **berdintasun** egitura eta mekanismoetan ematen diren gabeziekin lotuta daude.
  - o Administrazioen arteko **komunikazio eta koordinazio** falta dago; erkidegoen artekoa eta departamentuen artekoa (Hezkuntza eta Gizarte-ekintzaren artean adibidez...). Gainera, gatazkan sartzen diren arautegien artean ikuspegi kontrajariak ematen dira sarritan (adin txikikoak, partekatutako custodia, indarkeria...).

## Mugimendu feministak<sup>10</sup>

- Mugimendu feministak oso anitzak dira, zama handiko agendak dituzte eta baliabide aldetik oso egoera ezegonkorretan daude.
- **Indarkeria** elementu nagusizat hartuko duen **eragite-politikorako estrategia** baten falta dago. Honek aliantza eta adostasunei bide eman diezaioke.

<sup>10</sup> Mugimendu feministak pluralean aipatzen ditugu bere aniztasuna ikusgarri egiteko



- Mugimendu ezberdinetan **indarkeriaren diskurtsoan** sakontzeko beharrari lotutako gabeziak sumatu dira, bai eta diskurtso honekin herritarrengana modu zabal eta argian iristeko tresna berrien erabilpena ere (ohikoez gainera).
- Feministen artean, eta bestelako eragile sozialen artean **koordinazio** handiagoa behar da (komunikabideak, instituzioak, enpresak...), bai eta eragite handiago lortzeko **aliantzak** balioan jartzea ere (izan hauek puntualak edo eta jarraituak).

## Indarkeriaren prebentzioa

---

### Ikuspegi egokia eta borondate politikoa falta dira

- Indarkeria matxistei prebentziotik aurre egiteko administrazioen eta hezkuntza eragileen borondate politikoaren falta dago (ekimen zehatzak egitetik harago) errentagarritasun politikoaren arabera neurtzen delako (aurrekontuak arretara bideratzen dira prebentziora baino).
- Prebentzioari balioa kentzen zaio eta genero indarkeria kontzeptuaren zabaltasun eta konplexutasunaren aurrean kontzientziazio/sentsibilizazio falta dago.
  - o **Indarkerien identifikazioa falta da.** Gai hau lantzea zaila dela egiaztatzen dugu, ikastetxeetan eta gazte jendearen artean indarkeriarik ematen ez dela uste delako (berdintasunaren ameskeriari lotuta).
  - o **“Indarkeria matxistak” terminoaren zabaltasunaren ikus-egintzasuna** (ez soilik fisikoa ez eta bikotearen esparrura mugatutakoa). Izendatzen ez dena ez da existitzen, eta beraz indarkeria adierazpen guztiez hitz egiteak garrantzi handia du: indarkeria sexualaz, mutilazio genital femeninoaz, indarkeria sinbolikoaz, prostituzioaz... Indarkeria adierazpen hauek aitortzeak eta lantzeak garrantzi handia dauka prebentzio-lanean.
  - o Prebentzioaren diskurtsoak ez du indarkeriaren **arrazoietan** behar besteko arreta jartzen.
  - o **Erabiltzen den terminologiak** ere interbentzio lana garatu behar duten profesionalen lana **oztopatzen** du. Indarkeria, matxismoa edo eta ahalduzkoa bezalako terminoek hitz egitea arbuizatzen da administrazioek nahiago izaten dutelako “emakumeekin eta emakumeentzat” ikuspegiarekin lan egitea **benetako aldaketa eta eraldaketa prozesuak** sustatu beharrean. Prebentzio programez hitz egiten da (“abilezia sozial” bezala ikusten direnean harrera beroago dute). Zentro batzuetan prebentzioa “bokaziozko orientazio ez-sexista” deitzen hasi dira, inolako eduki feministarik gabea eta berdintasun deskafeinatu batera mugatuta.
  - o Indarkeria sufritu edo aurre egiten dioten emakumeekiko jendarteak duen perzeptzioarekin apurto beharra dago: “Biktimak”. Emakumeak modu horretan “etiketatzea” saihestu beharra dago, **berbiktimizazioa** ekiditeko.
- Genero indarkeriaren prebentzioa lantzeko administrazioak **oso integrala ez den estrategia sinplea** darabil.



- o **Integralak ez diren epe laburreko esku-hartzeak** proposatzen dira. Zeharkakotasuna eta epe luzerako proiektu integralak falta dira, baita planifikazioa, estrategiak, emaitzen balorazioak... Administrazioak epe motzeko ikuspegiarekin lan egiten du, emaitzak lortzeko beharrenekin. Ez dira programak ebaluatzen, ez dira azterketak eta diagnostikoak egiten... Modaren arabera lan egiten da, "txanpiñoi" ekimenak egiten dira, epe luzerako lanik gabe, eta gainera, prozesuak itxi gabe uzten dira, jarraipenik gabe eta emozioei laguntza eskaini gabe.
- o **Aurrekontu<sup>11</sup> eskasak eta interes txikia.** Prebentziorako estrategia eta baliabide gehiago behar dira.
- o **Hezkuntza sisteman lantzen den ikuspegia** ez da bat ere integrala hainbat espazio kanpoan uzten dituelako (kalea, komunikabideak, irakasleak...). Nekez konponduko da arazo global hau baldin eta prebentzio programak jasotzen dituen pertsonak mezu kontrajarriak jasotzen baditu (eskolan prebentzio tailer bat jasoko du eta etxera joandakoan mezu matxista duen iragarkia ikusiko du telebistan). Hezkuntzak globala, iraunkorra eta herritar guztiontzat izan behar du. Hezkuntza formala eta ez-formala aintzat hartu behar dira.
- o **Prebentzioaren xede taldea** gazteria dela uste du administrazioak, guk aldiz xede taldea adin guztietako herritarrek osatu beharko luketela uste dugu.
- o Egun prebentzioa eta arreta zeharo bereizita daude. **Prebentzioa eta arreta eskutik helduta daudela** ulertzeak garrantzi handia du. Arreta prebentzio-modu bezala ulertzea (ez soilik zaintza paliatiboak), sentsibilizatzeko eragileak ere izan daitezkeela ulertzea.
- o **Metodologiaren egokitze falta.** Programa bat sortzen denean, dauden beharrak detektatu, zer falta den diagnostikatu, erantzun egoki bat emateko modu errealista batean ebaluatu eta taldeen beharretara metodologiak egokitu beharko lirarteke (teknologia berriak,...)
  - Helburuen arabera lan egin (diagnostiko baten arabera, taldeetara egokitutako metodologiekin, adierazleen araberrako ebaluazioekin funtzionatzeko duela egiaztatzeko).
  - Tresna egokien falta (jende gazteari zuzendutakoak batez ere); erreferentzia femeninoak eta maskulinoak kontuan hartzea garrantzitsua da.
- Genero indarkeriaz eta existitzen den -gauzatzen den- indarkeriaz gazteek duten pertzepzioa aztertzeke egin diren azterketetan nabarmentzen da **hitzez adierazten duten arbuioa ez datorrela bat hartzen dituzten jarrera eta ekintzekin.** Prebentzio programetan zerk huts egiten duen aztertu beharra dago, zer eduki lantzen diren eta nola lantzen diren ere aztertzeke beharra.
- Egun dauden behar eta errealitate anitzi erantzungo dieten **baliabide apropos, egokitu eta eskuragarriak falta dira** (langile kopurua, kualifikazioa, aurrekontuak, den-

<sup>11</sup> Baliabide falta aztertutako arlo guztietan behin eta berriz errepikatutako arazoa da, baina azpimarratu nahi da ez dela baliabide falta soilik, baizik eta baliabide horiek egon badauden errealitate eta beharrietara egokituak egon eta eskuragarri izateko beharra ere.



bora, protokoloak...), **hala arretaren esparruan nola prebentzioarenean**, eta horren ondorioz, egiten den prebentzio lana moteltzen da edo ez da baliagarria. Profesional batzuk (osasunaren esparruan lan egiten dutenek adibidez) euren pazienteak artatzeko behar beste denborarik ez dute, eta indarkeria kasuak detektatzeko protokoloak dituzten arren ez dute lan hau garatzeko baldintza egokirik, protokoloak erabilezin bihurtuz. Protokoloak errealitatera eta beharretara egokitu behar dira ezinbestean.

- Esku-hartzerako ikuspegi berriei ekiteko (gizon edo eta mutil gazteekin **maskulinitate berrien** inguruan egiten den lanari ekiteko adibidez) **ez dira aurrekontuak handitzen**.
- Formazio/prebentzio **profesionalak**:
  - o Feminizatutako lan-sektore ezegonkorra da.
  - o Profesional batzuk ez daude espezializatuak (enpresa handien zein azpikontratatuena kasuan arazoa larriagotzen da, konpetentzia desleiala sustatzen dute gainera...).
  - o Ez dute behar duten aitortzarik, gutxiesten dituzte...
  - o Ez dute zaintzarako esparrurik.
  - o Sare-lana errazteko artikulazioa eta koordinazioa falta da.
- **Profesionalen eta edukien aitortza falta dago**. Prebentzio-lana garatzen duten profesionalak zalantzan jarri eta gutxiesten dira emakumeak eta gazteak izateagatik ("indarkeriari buruzko hitzaldiko neska", "tratu txarrez hitz egiten duten emakumeak", irakasleak hitzalditik kanpora ateratzea...).
  - o Egiten den lanari ez zaio behar besteko baliorik ematen.
  - o Mezu kontrajarriak zabaltzen dira (irakasleek, osasun arloko profesionalak, zentroetako zuzendaritza taldeek...).
  - o Lanak jarraikortasunik ez badu zentzua galtzen du, eta horretarako beharrezkoa da egunerokoan zentroan lan egiten duten irakasleekin ondo koordinatzea.

### Estrategia desegokiak eta ez-nahikoak hezkuntza formalean

- Kohezkuntza irakasgai bezala desagertzea. Erlijioa eskoletan.
- Kasu askotan, eskolek zein komunikabideek **data gogoangarrien** arabera (A25, M8) eta bestelako ekimen zehatzen dantzara funtzionatzen dute.
- Berdintasun tailerrak aurrera atera ahal izateko alde aurretik ikasleen **guraso elkarteekin** batera lan egin beharra dago (guraso elkarte hauek dira sarritan mota honetako tailerrak egin edo ez egin erabakitzen dutenak).
- Irakasleek ez dute behar bezalako formazioa jaso indarkeriaren prebentzioaren eta berdintasunaren inguruan. Hori dela eta beste erakundeen babesera jotzen dute



euren zentroetan inplikatu beharrean. Kasu batzuetan pertsona edo klaustro “ma-joen” arabera izaten da.

## Prebentzioa falta da hezkuntza informalean, ez-formalean eta bestelako esparruetan

- **Kolektibo espezifikoetan** ematen den indarkeria aitortzeko **programa espezifiko** beharra dago (emakume askok ez dutelako aitortzen). Bikote harremanenei zuzendutako prebentziorako hezkuntza programak garatzea eskatzen da.
- Zenbait kasutan administrazioek material interesgarriak prestatzen dituzte, baina ez dute **material hori behar bezala zabaltzeko** moduan ez eta praktikan jartzeko formazioan pentsatzen.
- Batzuetan elkarteek formazioa eskaintzen dute, baina parte hartzeko interes txikia dago gero.
- Indarkeriaren prebentzio kanpainetan atzera egin da: ulertzen ez diren edukiak, jatorrietara jo ez eta emakumeak errudun bilakatzen dituztenak.
- Osasunaren esparruan (lehen mailako arretan) ez dira indarkeria kasuak atzematen.
- Enpresen esparrura iristeko zailtasunak daude, bai eta indarkeriaren aurka lan egiteko blokeoa sindikalismoan. Lankideen eta patronalaren erresistentzia.
- Komunikabideak:
  - o Kristalezko sabai bat dago komunikabideetan. Ez dago emakumerik ardurak hartzen eta gai eta sekzio jakinen arabera segregazioa ere ematen da.
  - o Profesionalen formazioa ezinbestekoa da informazioari behar bezala heldu diezaioten.
  - o Iristeko eta presentzia izateko zailtasunak.
  - o Indarkeriaren tratamenduan **atzera** egin dela hautematen da: estereotipoak, ikusezin bihurtzea, emakumeak errudun jotzea, emakume “susmagarriak”, indarkeriaren justifikazioa edo “patologizatzea”, emakumeen hitza zalantzan jartzea, sensazionalismoa...
  - o Problematika desitxuratzen dute. Indarkeriaren trataera kaltegarria. Beste indarkeria mota batzuk ikusezin bihurtzen dituzte.
- Familia esparruan berdintasun ezaren aitortza falta dago, eta beraz, gaia lantzeko premiarik ez.

## Arreta eta tratamendua

---

- Baliabideen eta zerbitzuen egituraren ez-ezagutza dago, bai eta bere funtzionamendua ere.



- Datu objektiboak lortzeko zailtasunak daude.
- Instituzioen eta baliabide ezberdinen arteko koordinazioa falta da.
- Problematika edo errealitate espezifikoak bizi dituzten emakumeek dituzten zailtasunak nabarmentzen dira: buru-osasuna, toxikomaniak, presoak, ijitoak, egoera administratibo irregularrak eta prostituzioan dauden emakumeak<sup>12</sup>, etxeko langileak. Xenofobia, arrazismoa eta pobrezia zeharkakotasuna... Ez dago estrategia bateraturik.
- **Emakumeak baliabideetara doitu nahi dira**, alderantziz izan beharrean. "Manularen arabera biktima" izatea exijitzen zaie, mendekoak izatea, inposatutako arauak eta sistema onartzea.
- **Emakumeak biktima bezala** marratzeko arriskua dago. Eskubideak babestu, ez emakumeak.
- **Formazio** gabeziak:
  - o Profesionalei eskaintzen zaien formazioa tekniko da, eta ez politikoa, prozedurei murriztua, eta eredu kritikatu ez duena. Formazioa esku-hartzerako tresna bezala prestatzen da, eta testuinguru teorikoa zein genero teoria feminista ahaztu egiten dira.
  - o Lehen mailako arretan indarkeriari buruzko 10 orduko oinarrizko ikastaroak baino ez dira eskaintzen, sintomen arabera indarkeriaren biktima izan daitezkeen emakumeak identifikatzen zuzenduak (baliabide espezializatuera bidaltzeko gero). Ikastaro hauetan profesional gizonen %1ak baino ez du parte hartzen, eta batzuk formazioa boikotatzeko joera erakusten dute.
- Ez da legedia ezartzen. Administrazioak legeak betetzen ote direnaren kontrol txikia egiten du.
- Denbora, baliabide eta espazio falta dago. Ezegonkortasuna. Zerbitzuak gainezka daude eta langile gutxi. Baliabide gutxi dago. Topaketa-puntu txikiak. Adin txiki-koentzako baliabide falta dago.
- Zerbitzu sozialak masifikatuak daude, murrizketa material eta humanoen ondorioz egoera prekarioan daude, eta horren ondorioz arreta kalitate txarrekoa da edo ez dago arretarik. Eskara handitu da, eta beraz saturazioa handiagoa da. "Arreta ematerako orduan gainezka bagaude ezin dugu kalitatez artatu".
- Arreta lan hau nola egiten den berdintasun teknikariaren borondatearen menpe dago, sarritan, instituzioena baino, apustu pertsonalak direla ematen du.
- Entitate kudeatzaile eta publikoen arteko ezberdintasunak. Kontuz ikuspegiarekin: emakumei zuzendutako zerbitzuak bestelakoetara zabaldu egiten dira eta euren

<sup>12</sup> Terminoa erakunde eta posizionamendu politikoen arabera aldatzen da (sexu-langileak, prostituitutako emakumeak...), testu honetan "prostituzioan dauden emakumeak" erabiliko dugu, eztabaida sortzen duen kontzeptua dela jakinik.



hasierako zentzua galtzen dute (emakumeei zuzenduak izatetik adin txikikoenak, gazteenak, familienak, amenak, gizonenak... izatera pasatzen dira). Beste kolektiboetara zabaltzen zaien arreta espezializatua diluitu egiten da; arreta puntua emakumeenganako indarkeria izatetik indarkeria orokorra izatera pasa egiten da.

- Emakumeei zuzendutako baliabide eta zerbitzuak desartikulatzen dira jarrera ideologiko jakin batekin.
- Lehen mailako arreta (identifikazioa eta antzematea ematen den hori) gerora egingo den esku-hartze horretatik bereizi beharra dago, azken honetan espezializazio handia behar delako. Filtratu eta biktimak esku-hartze espezializatura bideratuko dituzten langileak behar dira.
- Familia biolentziaren amak errudun jotzen dira eta ardura egozten zaie (adin txiki-koek eta bikoteek), berriro ere biktima bilakatuz. Kasu emakumeak errudun egiten dituzten ama-seme-alaben arteko loturak indartzeari. Seme edo alabekin esku-hartzeak beti amarekin batera egin behar dira, genero-ikuspegia oso presente izanik.
- Profesionalek ez dute indarkeria sexuala atzematen, ikusezin egiten dute. Formazio espezifikotik ez da gai hau lantzen eta beraz, ez dira identifikatzeko gauza.
- Dena protokoloetara ekartzeko interes/ardura "handiegia" dago, eta horren ondorioz maila sozialean gertatzen denaren hustuketa politiko eta ideologikoa ematen da.
- Kasuak bideratzerako orduan emakumeen egoera ekonomikoak eragina du.
- **Esku-hartze sozialeko lantaldeetan** antzematen da, espezializazio eskasaren eta baliabide urrien ondorioz, Topaketa Puntuetan emakumeak berbiktimizatzen direla (euren seme-alabengan duen eraginaz galdetzen zaio amari). Gainera, zenbait kasutan ez dira babes-aginduak errespetatzen.
- **Osasun-lantaldeetan eta lantalde juridikoetan** antzematen da legeria ez dela behar bezala ezartzen. Adin txikikoak biktima bezala aitortzearekin batera tratatu txar emakumeen kustumetarako eskubideak onartzen dira.
- Profesionalek artean antzematen da oro har botere harremanak birstortzen dituztela emakume erabiltzaileekin; aprobetxategiak direla esaten zaie, emakume migranteak **estigmatizatzen** dira arazo nagusia erasotzaileak eta euren biolentzia direla ahaztuz.
- Kultur-arteko aldagaiak aintzat hartzen ez dituzten **esku-hartze esparru estankoenak** antzematen dira: indarkeriaz haragoko bizipenak, aurretiaz bitzitako bestelako indarkeria egoerak, edo eta euren jatorrizko herrietan aldi baterako egonaldietan erasotutako izan diren emakumeen kasua adibidez.
- **Erasotzaileekin esku-hartzeak** ez dira eraginkorrak, eta zenbait kasutan kontrako eragina dute, esku-hartzea inposatua eta zurrina delako, autokontrolaren garapenera mugatzen delako. Kontrol faltagatik erasotzen ez dutela ahazten da eta indarkeria modu sotilagoan eta zitalagoan garatzen ikasten laguntzen zaie horrela.
- Defentsa-jarrera matxista berriak:



- o “Familia nuklearraren ideia” indartzen dute, zeinetan tratu txar emalea aita ona izan daitekeen.
- o Erasotzaileen berrarmatzea eta jendartearen babesa: Erabilera orokortzen da eta “SAP”a (Alienazio Parentalaren Sindromea) legitimatzen da ebidentzien falta dagoe-nean ere. Erasotzaileek emakumeen aurkako kontra-salaketak egitera jotzen dute.
- Emakumeak gero eta prekarioagoak diren oinarrizko beharrianekin datoz, eta lehen-tasunez beharrian horiek asetzera jotzen da, esku-hartzean ezinbestekoak diren bes-te alderdi batzuk albo batera utzita.
- Topaketa Puntuak murriztu dira eta hauen kudeaketa esperientzia eta espezializazio gabeko entitateen esku utzi da. Honek ondorio ezin kaltegarriagoak ditu.
- Adin txikikoentzako baliabide espezializatuen falta.
- Baliabide sozial prekario hauek ez dute laguntzen arreta kalitatez ematera, eta beraz, profesionalak eurek zerbitzu horietara emakumeak bideratzeko mesfidantza dute.
- Ofiziozko txandaren denbora asko luzatzen da, eta ebatzen den artean emakumeek ezin dute euren prozesuetan aurrera egin.
- Baliabide faltaren aurrean, emakumeak menpeko bihurtzen dira, bizi proiektu autonomo bat, ahalduzko ekonomikoa edo psikologikoa garatzeko ezintasunean.
- **Murrizketek**, batez ere adin txikikoentzako arreta psikologikoan, arreta prekarioa eragiten dute. Ez da jende espezializatua kontratatzen. Joera, indarkeria lantzeko baliabi-deak murriztea da, arazoa ikusezin bihurtuz.
- Arreta-aldian emakumeentzako **ate birakariak** daude, sarrera eta irteera ate bana egon beharko lukeenean. Beste guztiak, emakumeak nahasten ditu.
- Orain arte, joera berehalako esku-hartze integrala administrazioaren zeregina dela eta elkarrean lana zeregin horren osagarri izatea dela pentsatzea izan da. Zenbait lurral-deetan arreta zerbitzuak erakunde kanpoko elkarte eta profesionalen, zein hainbat zerbitzu-enpresen eskuetan uzten hasi dira (honek sortzen duen ikuspuntu aldaketarekin). Zerbitzu hauen esternalizatzea egoera prekarioan eragiten da (nahiz eta adminis-trazioan ere prekarioarako joera ere badagoen).
- Salaketa instrumentalizatzen da (arreta baldintzatzen da).
- **Indarkeria biolentzia fisikoarekin lotzen da**. Sarritan indarkeria sexuala ez da kon-tuan izaten (poliziak ez du testean jasotzen). Zenbait emakumek ez dute indarkeria sexuala indarkeria bezala barneratu, eta beraz, ez dute salatzen. Beharrezkoa da esplizituki galdetzea.
- **Arrisku-balorazioaren ezarpena** ez da egokiena. Langileak espezializatuak ez ba-daude, ez dira ohartzen emakumeek ez dutela dena kontatuko, eta euren joera arris-kua gutxien izango dela. Emakumeek ez dute gizona kartzelara joatea nahi, es-karmentu bat ematea baizik. Eta balorazioak garrantzi handia du, informe hori izango





baita gakoia epaitegietan. Lanabes hau **goitik behera berrikusi beharra** dago.

- Legeetan eta bestelako tresnetan ematen den indarkeriaren gaineko ulermenak baliabideak eskuratzea oztopatzen du.
- Nazioarteko emakumeen arreta gabezia, ez baitituzte eskuragarri dauden baliabideak ezagutzen, ez dakite nora jo, hizkuntz arazoak dituzte...

## Esparru Juridikoa

---

### Orokorrean:

- **Lege egokiak eta hauen ezarpen erreala** beharrezkoak dira, 2004ko legea ez da betetzen ari. Egungo legeak ez du indarkeria matxistaren forma aniztasuna jasotzen.
- Instituzioek egiten duten lanaren **jarraipena falta** da.
- **Formazioa** eta sentsibilizazioa falta dira. Ez dago eskola profesionalen formazio espezializaturik, are eta gutxiago genero ikuspegia duen formaziorik. Era berean ez zaie formazioa eskaintzen operadore juridikoei (abokatuak, epaileak, mediku forentseak...), poliziei, ez eta klase politikoari ere. Formazio falta honen ondorioz emakumeak ez dira behar bezala informatzen edo eta ematen zaion informazioa okerra da eta beraz prozesua kaltetzen dute.
  - o Polizian: Salaketa sorta bat betetzeko jarraibideak dituzte, eta zenbait kasutan emakumeei esaten diete gertakariak ez direla salagarriak. Bereziki salatu nahi da zenbait polizia-etxetan genero indarkeriagatiko salaketarik ez jarri eta dibortzioa tramitzatzeko gomendioa egin dietela emakumeei, polizia-etxe bakoitzaren estatistika beharren arabera.
- **Abokatuaren Kolegioan** eskaintzen den formazioak ez du genero-ikuspegirik.
  - o Zigor-ofizioko txandarako sarbide ikastaroan (txanda "orokor" honetan balizko erasotzaileen kasuak esleitzen dira) **kontra-salaketak egiteko edo eta emakumeen frogak atzera botatzen ikasteko aholkularitza** eskaintzen da. Kontra-salaketa estrategiak sarean ikusgai dituzten elkarteak daude.
  - o Formazio gabeziak antzematen dira indarkeri **gaietan espezializatutako epaitegietan** eta **Estatuko Segurtasun Indarretan**.
- **Baliabideak** falta dira (ez soilik materialak, baita langileak edo zerbitzuak ere...)
- **Itxaropen handia** dago emakumeak berriro ere biktima bihurtzen dituen eta erantzun egokirik ematen ez duen justizia sistema kontrolatzailearengan. Zehazki, itxaropen handiak pizten dituzte emakumeen salaketetan: dena ondo joango da, azkar, doako aholkularitza izango duzu... Eta salaketa gauzatzen dutenean ohartzen dira prozesua ez dela modu horretan garatzen.
- Prozesu hauen ezaugarri dira **emakumeak** estigmatizatzen direla eta ez dituztela behar bezala informatzen.



- Emakumea **berriz ere biktima** bihurtzen dute prozesuan parte hartzen duten eragile guztiek, formazio egokia izan gabe eskaintzen diren zerbitzuetako kide guztiek (argi eta garbi topaketa-puntuetakoeak, sarritan zerbitzu-sozialek, epaitegietan gertatzen dena emakumeari deklarazioa hartzen zaion momentutik bertatik -zeinetan emakumea galdekatu egiten den erasotzaileak eurek balira bezala-, SAPa...)
- **Indarkeria matxistaren gaineko estereotipo eta aurreiritziak** (salaketa faltsuen mitoa, epaiak...).
- Hainbat deklarazio egin beharrak ere (Komisarian, Instrukzio eta auzipetze epaitegian) emakumeengan nekea sortzen du eta horrek euren testigantzak sinesgaitzak edo kontraesankorrak bezala hartzea errazten du.
- Krisia gogortu izanaren ondorioz, arreta pertsonalizatua kaltetu egin da, genero-ikuspeirik gabe ematen da, esperientzia gutxi duten profesionalen eskutik, egoera prekarioran (topaketa puntuetan adibidez).
- Estereotipo eta aurreiritziak oso presente daude prozesu guztian. Indarkeria pairatu duten emakumeak nolakoak izan behar duten zehazten duen iruditeria ezartzen da, zeinetan emakumeak ezin diren agertu ahaldunduak edo eta izaera gogorreko. Paradoxikoki, emakumeen ahalduntzea lantzen duten aholkulariek ikusten dute ahalduntze horrek kalte egiten diela ez dutelako biktima estereotipoa betetzen. Bestalde, abokatuek deklarazioak prestatzen dituztenean, emakumeak “doktrinatu” izana leporatzen diete.
  - o Ez dira **gailu telematikoak** esleitzen.
  - o Sistemak ez ditu **babes neurriak** behar bezala ezartzen.
- Salaketa faltsuen mitoa ere hor dago, kasu hauen ehunekoak baxuetan baxuena denean, eta bestelako esparruetan ematen direnak argitaratu ere egiten ez direnean: gehienak aseguru-etxeetan ematen dira, eta hori ez da aipatzen. Aldiz, ez dira argitara ematen erasoak salatu ondoren berriro ere erasotzak edo erailak izan diren emakumeen kasuak.
- Gizon elkarteek informatu egiten dituzte eta berriro ere erasotzeko tresnak eskaintzen dizkiete.
- Emakumeek arlo zibilean eta zigor-arloan deklaratzeko dutenean gainean duten erru sentimendua: “ez dut kartzelan sartzea nahi”, seme-alaben ardura, adin txikikoen erasotzailearen arduradunak, “zer pentsatuko dute nitaz”...
- Prozesu judizialak landa eremuan eta hiri-eremuan ezberdinak direla antzeman dugu.
- Salaketen sistema juridikoa kalbario hutsa da salaketa jarri duten emakumeentzat.
- **Topaketa Puntuetan** ez dute genero ikuspegiarekin lan egiten.

## Gabeziak prozesu judizialean

- **Arrisku polizialaren balorazioa** programa informatiko baten bidez egiten da (gizataunetik gabea), arrisku maila zehazten duten galdera batzuk oinarri hartuta. Kriminologo



bat ere ez bada fidagarria, programa informatiko bat are eta gutxiago! Poliziak arrisku-balorazioak beharrezko joerarekin egiten dituela salatu da.

- **Salaketa** bera, emakumeen aurkako indarkeria salatzen bezala, oso tresna mugatua da, eta bumeran bat da. Salaketa babeserako lanabes bat da, eta orain emakumeak susmagarri izatera pasatzen dira. Horregatik hasieran indar handia egiten zen salaketan, orain aldiz arreata handiagoa ematen zaio informazioari, salaketa jartzeko presiorik egin gabe eta behartu gabe.
- **Salaketa** egindakoan: emakumea ez da prozedura judizialaz behar bezala informatzen, eta poliziak egin beharko luke lan hau. Are gehiago, zenbaitetan poliziak zuzena ez den informazioa ematen die, emakumeak nahastuz (epaiketa azkarrez hitz egiten diete eta emakumeek beste zerbait ulertzen dute...).
- **Epaitegietan** laguntza: emakumeek jasotzen duten tratuan atzera egin da, bai eta langileen zein funtzionarioen diskurtsoetan ere, “babes-aginduak gehiegikeriaz erabili dira” adibidez.
- **Epaitegietako lantalde espezializatuak** onak ziren hasieran, gerora okerrera egin zuten: langileen errotazioa, murrizketak, lan baldintza prekarioak... Honek guztiak espezializazio faltan eragin zuen (6 hilabeteko kontratuak).
- **Informazioa** falta da. Berehalako abokatu-laguntza falta da. Biktimarentzako zerbitzuak falta dira. Laguntza falta da. Informazioa falta da. Koordinazioa falta da.
- Ez dago **doako aholkularitza juridiko espezifiko** eskuratzerik, eta emakumeek informazio falta handia dute zigorgarria denaz eta ez denaz, salaketa noiz jarri daitekeenaz, nola egin behar denaz...
- Salaketa egin ahal izateko oinarritzko jarraibideetara iristeko berehalako **abokatu-laguntza** falta da, eta hau garrantzitsua da prozesu judizialean.
- **Agerraldi juridikoan** gabeziak:
  - o Epaitegietako espazio fisikoa izugarria da (komunera joateko baimena eskatu behar dago, erasotzaileen ondotik pasa beharra...).
  - o Baliabide gabezia handia dago.
  - o Biktimaren arretarako zerbitzuak falta dira.
  - o Emakumeak laguntzeko gabeziak daude.
  - o Emakumeek dituzten eta ez dituzten eskubideen gaineko informazioa falta da. Ez deklaratzeko eskubidea dutela eta horren ondorioz auzia artxibatuko ez dela jakitea adibidez.
  - o Biktimarentzako garrantzizkoak diren alderdien gaineko informazio gabezia dago; zein prozedura ezarriko den erabakitze orduan esku-hartzea; onespenez; babes-aginduetarako adierazleak (emakume batek beldurra duela esaten duenean adibi-




dez, emozio bat dela jasotzen da, froga bezala aintzat hartu gabe... Baina ere berean ez da frogak zer diren azaltzen ez eta noiz aurkeztu behar diren ere).

- o Hutsunez betetako rola betetzen du fiskaltzak.
  - o Epaitegietan sentsibilitate falta orokortua da, eta horrek emakumeak blokeatzea eragiten du.
  - o Abokatuek ez dituzte emakumeak behar bezala ordezkutzen (emakumeen oniritzi-rik gabe akordioetara iristen dira adibidez, presa handiarekin konbentzituraz...).
  - o Epaitegi batzuetan, biktimarekin eta honen abokatuarekin kontsultatu gabeko "adostutako sententziak" topatu dituzte, kasua behin behineko indarkeria ekintza bezala -edo beste mota batzuetan- katalogatuz.
  - o Koordinazio espezifikokoaren falta dago mediku, psikologo, forentse eta bestelako profesionalen artean.
- Geldotasun orokortua ematen da auzien **instrukzioan** (urte eta erdi eta hiru urte artekoa), eta horrek ondorioak ditu emakumeengan (prozesua utzi egiten dute).
- **Epaiketa** penala:
- o Emakumeek presio psikologiko eta emozional handia sufritzen dute eta sententziaren ardura euren egozten zaie (adostasunak, gurutzatutako salaketak, fiskaltza ere defentsarekin akordioa lortzen ahalegintzen da... fiskaltzak betetzen duen rolak ez du batere laguntzen).
  - o Prozesu judiziala tokiko ikuspegiarekin ematen da, ez dira nazioarteko tresnak erabiltzen.
  - o Manparak erabiltzeko erresistentzia handia dago, eskubidea izan arren.
  - o Frogen balorazioa epailearen iritzia araberakoa da. Batzuetan lesio-txostenak ere ez dira nahikoa izaten. Froga baliabideekin ere ez dute beharrezko balorazioa jasotzen, eta espazio "pribatu" batean frogak eskuratzeko zailtasuna ez da aintzat hartzen.
- **Sententzia** betearaztea:
- o Informazioa falta da.
  - o Emakumeak ikusezin bihurtzen dira.
  - o Fiskaltzak eta akusazio partikularrak ez dute parte hartzen.
  - o Atzera egin da, lehen sententzia eman eta sententzia betearazteko ardura epaitegi berdinak zuelako, orain aldiz epaitegi ezberdinak dira.
  - o Ez dago kasuen araberako lehentasunak neurtzeko adierazlerik (sententziaren betearazpenean).



- o Ezartzen ari diren epaiak gero eta neurri txikiagokoak dira eta babes-neurriak iraupen laburragoa dute. Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiak eta Genero Indarkeriaren Behatokiak argitaratutako estatistika informeek diote artxibatutako kausak hasi egin direla, babes-agindu gutxiago ematen direla eta eta SAP -Alienazio Parentalaren Sindromerako- argudio “estaliak” ere eman izan direla. Bereziki nabarmentzen da oso ez-ohikoa dela adin txikikoen eta erasotzaileen arteko bisiten edo eta tutoretzen inguruko neurri zibilak hartzea. (Zigor epaien kasuan ere, kasuen %7an baino ez dira mugatzen bisitak eta kasuen % 0,3an baino ez dela guraso-ahala kentzen).



## ESTRATEGIAK

### Eragite-politikoak

#### Administrazio publikoari eskakizunak

- **Especializazioa** (ez formazioa) eskatzea maila guztietako profesional eta funtzionarioei (era transbertsal batean) eta egiten ez den tokietan salaketa jartzea. Formazioa kualifikatutako pertsonak egin beharko dute, ikuspegi feminista batekin.
- **Berdintasunerako mekanismoak** eskatzea: ministerioak, zinegotzigoak... bai eta espazio iraunkor eta egonkorak ere.
- Dagoeneko indarrean dauden **esparru arau-emaielen garapena eta ezarpena** eskatzea (2004ko Legea eta lurralde ezberdinetan garatutako mekanismoak) arlo guztietan (ez soilik arlo juridikoan edo eta arretarenean).
- Indarkeria matxistaren gaineko ikuspegi zabalagoa duten **CEDAW edo eta Istanbulako Akordioa** bezalako nazioarteko lanabes lotesleak ezarpena exijitzea eta ez-betetzak salatzeke CEDAWren “Informe Sombra” bezalako estrategiak erabiltzea.
- Indarkeriari aurre egiteko baliabideak eta behar bezalako **aurrekontuak** izendatzeko lan egitea (baliabide gehiago eta diskurtso gutxiago) berdintasuna lantzerako dagoeneko bideratuta dauden funtsetatik kendu gabe (ahalduntzea, maskulinitate berriak...).
- Legeetan jasotzen den **indarkeriaren kontzeptualizazioa** berrikustea -honek baldintzatzen baitu aitortza eta baliabide zein zerbitzuetarako sarbidea- **indarkeria matxista motak zabalduz eta emakumeen espezifikotasunak** aintzat hartuz (aniztasun funtzionala, etnikoa, emakume migratzaileak...).
- Emakumeen eskubideen alde egiteko esparru arau-emaiak ezberdinen arteko koherentzia exijitzea (**Adin Txikikoen Legearen** erreforma adibidez, **zaintza partekatuen** arriskuak...).



## Hobekuntzak mugimendu feministan eta jendarte zibilean

- Indarkeria Matxista mugimendu feministaren **GAI NAGUSIA**<sup>13</sup> izan zitekeen, **kontsent-su eta aukera sozial handiko gaia** delako. Gutxieneko agenda bateratua erdiesteko akordioa indarkeriaren gaian ere (posizionamendu ezberdinak daudenaren jakitun), eta ekinbide nagusien definizioa. Ekimen bateratuak eta aliantzak ahalbidetuko dituzten **akordio zabalen** alde lan egitea.
- **Begirada feminista batetik INDARKERIA MATXISTA KONTZEPTUAN** sakontzen jarraitzea, bai eta erlacionatutako beste batzuetan ere, **indarkeria mota berriei** adi egonik beti ere, arloen arteko ikuspegi batekin. Zehatzean:
  - o Biktima/bizirik atera denaren kontzeptua berrikusi eta sakontzea, bai eta kontzeptu hauei lotutako ikuspegi guztiak ere, bizirik atera diren emakumeak eraldaketarako eragile protagonista bilakatuz. Emakumeak, zerbitzuen erabiltzaile bezala baino, eskubide subjektu bezala hartuz. Erabiltzen dugun lengoia berrikustea garrantzitsua da<sup>14</sup>, genero indarkeria sufritu duten emakumeak nola izendatzen ditugun berrikustea, eztabaida hauei berriro ere heltzea.
  - o Emakumeen eta hauen sinesgarritasunaren aldeko ofentsiba oso indartsua. Garrantzitsua da diskurtsoak eta kontzeptuak emakumeok, emakume ikuspegiarekin, ikusgarri bihurtzea eta hauen balioa handitzea. Emakumeen eskubideak babestea eta ez emakumeak, urratzen direnak euren eskubideak baitira.
  - o Emakumeak errudun jotzearen ikuspegia aldatu eta erasotzailea eta estatua jarri arretaren erdigunean.
- Diskurtso patriarkala desarmatuko duen diskurtso propioa garatzea (emakumeak soilik biktima bezala aurkeztearen mezua albo batera utzi eta arduradunak seinalatzen hastea) eta **eredu berrien eraikuntzari ekitea feminismotik**.
- **Mugimendu feministak** indarkerien aurkako borrokan izan duen betekizun protagonista aitortzea (aurrerapenak: arazo publiko eta politikoa...).
- **Erreparazioa** eskatzea, hala esparru juridikotik nola sinbolikotik.

## Aliantzak indartu eta berriak sortu

- **Intrafeministak** (lurralde-maila ezberdinetan, WAVE sare europarra adibidez).
- **Beste arlo batzuetako emakume** taldeekin: diziplina arteko aliantzak eta aliantza transnazionalak.
- **Bizirik atera diren emakumeak** eraldaketarako eragile protagonista bezala. Indarke-

<sup>13</sup> Bere larritasunagatik, indarkeria gai nagusia/estrategikoa izatea proposatu da prozesu honetan, baina ikuspegia ahaztu gabe, hau da, egiturazko berdintasun-eza da indarkeriaren kausa.

<sup>14</sup> "Biktimak" kontzeptua baino, "Bizirik atera diren emakumeak" kontzeptua erabiltzeko adostasun nahikoa dago aktibista eta aktibista-profesionalen artean, ez soilik prebentzioaren esparrutik, baizik eta esku-hartzearen esparru ezberdinetatik ere. Baina esparru judizialeatik kontzeptu aldaketa borroka feministentzako lorpen bat dela uste bada ere, juristek "biktima" bezala izendatzen jarraitzea hobesten dute arrazoi estrategiko bategatik, Estatuak emakume hauek babesteko neurriak hartzeko ezinbesteko aurrerapena izan baita; eta beraz, Estatuaren erantzuna exijitzeko garaipena.



rien biktima izan diren emakumeen elkarteak ezagutu.

- **Beste mugimendu sozialekin** aliantza.
- **Elkarte, GGKE, esku-hartze sozialeko erakundeekin** zein hirugarren sektoreko beste-lako erakundeekin aliantzak, sinergiak sortu eta baliabideak partekatzeko.
- Indarkeriaren aurka eta maskulinitate berrien alde lanean ari diren **gizon** elkarteekin aliantzak.
- **Eragite-esparruen arabera elkarte ezberdinekin** aliantzak eta sare-lana sustatzea eta metodologiak zein ezagutzak partekatzeko topaketak egitea arloka eta euren artean (prebentzioa, arreta, juristak...).
- **Instituzio publikoetako profesionalekin** aliantza (konfiantza, aitortza eta aliantza): langile teknikoa eta politikariak bereiziz kasu honetan, aliantza eta estrategia ezberdinak ahalbidetuz.

Zertarako?

- **Elkar ezagutzeko, aitortzeko**, koordinatzeko, informazioa eta jakintzak partekatzeko (lanabesak, metodologiak, ezagutzak...).
- **Eraldaketa gure zailtasun propioak berrikusteko**, bai mugimendu feministan zein mugimendu sozialetan ere, hala gure pentsamenduan nola gure erakundeen eguneroko praktikan (boterearen kudeaketa).
- **Diskurtsoa** eraikitzeko eztabaidarako espazioak izateko, bai eta **eragin politiko eta sozial** handiago izango duten ekimen bateratuak definitzeko ere.
- Taldeen **denbora eta espazioak** ahal beste **aprobetxatzeko** norberaren agenda gehiago zamatu gabe eta aniztasunaren eta ezberdintasunen kudeaketa zainduta.
- Indarkeriaren eta dauden zerbitzu/baliabideen egoeraren gaineko **diagnostiko** argi bat izateko. Dauden baliabide eta sareen mapa egin eta gure arteko sarearen bitartez erabilgarri izango zaigun informazioa eta datuak eskuratu. Arlo ezberdinen arteko artikulazioa informazio gehiago eta kide-erreferentzialak izateko zein gure arteko formazio saioak egiteko.

## Eragite-politikorako estrategiak indartu

Zigorgabetasun handiko testuinguru gogor batean aurkitzen gara, baina era berean motibazio eta ekintzarako gogoak egon badaude indarkeria egoeraren aurrean jendartean dagoen hase-erregatik eta orain gutxi erdietsitako lorpenengatik, abortuaren erreformaren aurka eraman-dako estrategia kasu.

- Mugimendu feminista ezinbesteko eragile bezala **aitortzea** bere eskakizun eta proposamenak jaso daitezten.
- Indarkerien aurkako **estrategia** feminista argi baten beharra (posizionamendua eta estrategia: nork, zer, zertarako eta noiz): prozesu ikuspegi bat izango duena, jasangarria



eta irismen handikoa. Indarrak neurtu eta modu estrategiko batean, jarraikortasunez, planteatu behar ditugu **lehentasunak eta hauen gauzatzea**.

- Eragiterako formazioa falta da, hala oratorian nola eragite-politikorako estrategiak zehazteko. Garrantzitsua da **bozeramaile** ahaldunduak eta indartsuak izatea, babes handia izango dutenak.
- Indarkeriaren inguruko lan guztia ez da instituzio publikoen esku utzi behar, are egungo gabeziak ikusita.

### Salaketarako ikerketa, jarraipen eta ebaluazio estrategia

- Identifikatzen ari garen hutsuneak salatzeiko **kontrol eta zaintza estrukturen sorrera**. Modu honetan eztabaida politikoan zein instituzioekiko eztabaidan sartzea ahalbidetuko diguten datuak eskuratu ahal izango ditugu, bai eta praktika onak identifikatu ere. **Indarkeria Legearen eraginaren ebaluazioak garrantzi handia du**, eta horregatik eskatu dugu, eta oraindik ez dute egiten. Ondo egiten bada adibidez, gizarte zibilak egin ahalko luke eta horrek lanabesak eta diskurtsoa emango liziguke.
- Datu zehatzen bilketaren eta salaketa humanizatuaren bitartez **“ekintza-behatzea-salaketa-erantzuna” sareen** sorrera zigorgabetasuna saihesteko. Monitorizazio organo hauek zerk kale egiten duen, zer funtzionatzen duen eta egoera aldatzeko zer egin adieraziko ligukete.
- Ezartzen den guztiaren **inpaktu ekonomikoaren azterketa** egin.
- **Indarkeria espezifikoaren gaineko azterketak** egitea garrantzitsua da. Indarkeriaren mutazioak edo indarkeria mota berriak jasoko dituen eguneratutako informazioa ekoiztu.
- Adin txikikoen aurkako indarkeria salatu (semeak eta alabak) eta haurtzaroren babesaldarrikatu.
- Femizidioa, femizidioa eta emakumeen aurkako indarkeria erazteko Arreta Egokiaren betebeharra exijitzea estatuei. Jarraikortasuna eman beharreko praktika onen eredu dira **emakumeen aurkako indarkeriaren, feminizidioen eta femizidioen aurkako Europako Batasunaren CELAC gailurrean** hainbat mugimendu sozialek aurkeztutako gomendioak. 2015eko ekainean egindako Feminizidio eta Femizidioari buruzko VIII. Konferentzian<sup>15</sup> parte hartu zuten Europako zein Latinoamerikako erakunde eta sareek elkarlanean egindako lanaren ondorio izan ziren gomendio hauek.

### Mobilizazio estrategia

- Mobilizazio sozial zabalaren garrantzia. Ohiko mobilizazio ereduak berrikusi eta mobilizazio tresna zein metodologiak berriak aztertu, hala nola artearen ikuspegitik, performanceen erabilpenarekin...
- Protokolo eta strategiak definitzea emakumeak erailtzen dituzten kasuetarako, horrelako gertakariei berehalako erantzuna eman behar zaielako: Elkarretara-

15 [www.cooperaccio.org/wp-content/uploads/2015/06/DeclaracionVIIConfFeminicidioRecomenCumbreUECELAC.pdf](http://www.cooperaccio.org/wp-content/uploads/2015/06/DeclaracionVIIConfFeminicidioRecomenCumbreUECELAC.pdf)





tzek adibidez emakume bat erailtzen den bakoitzean, jarraibide zehatz batzuekin (protokoloa).

## Hezkuntza eta prebentzioa

---

### Administrazio publikoari eskakizunak

- Prebentzioaren **garrantzia** ikusarazi, hala hezkuntza formalean nola ez-formalean.
- Nahikoa ez diren eta Legearen garapena galarazten duten neurriak salatu.
- Errealitatean dauden premien inguruko **diagnostikoa** osatu eta hori oinarri hartuta lan egin.
- **Estereotipo eta erresistentziekin** apurtu. Feministak adibidez, "feminazi" bezala izendatzen hasi dira eta indarkeria matxisten aurka lan egiteak biolentzia gehiago dakarrela baieztatzen da. Zenbait profesionalak jendearengana iristeko terminoak erabiltzearen aldeko hautua egiten dute (maitasun erromantikoa, berdintasuna, gatazken kudeaketak, tratu onak, mikro-matxismoak...).
- Indarkeriaren prebentzio eremua zabaltzea, **ez dadin indarkeria fisikora ez eta bikotean ematen den horretara** soilik mugatu.
- Ekimenak **pedagogia feministatik** proposatu behar dira, indarkeriaren arrazoiei helduko dietenak, berdintasun-ezarekin lotuta, eta patriarkatuaren berme diren jarrera eta ereduak zalantzan jarriko dituztenak.
- Biktima izan diren emakumeen funtzio sozialari berriz ere heldu: berriz ere politizatu, ikusarazi. **Bizirik atera diren emakumeak** genero indarkeriaren borrokan eragile bihurtu (prebentzio sustatzaile bezala); lehen eskutik kontatu ditzatela euren esperientziak, ahalduntzeko modu bezala ere.
- **Ahalduntzea** landu (norbanakoena eta taldeena): gazteak, autoestimua, sexualitatea... Arreta ez dadila soilik emakumeengan jarri, baizik eta gizon eta mutilengan ere.
- Eredu positiboetatik landu prebentzioa, prebentzian **erreferentziazko ereduak** izango direnak bilatu eta formatu (pertsonek zehatzak, jendea haiekin identifikatuko dena): maskulinitateak lantzeko mutil eta gizonak formatzea adibidez, edo eta emakume ijitoak euren etniako emakume gazteekin lan egiteko...).
- **Sare sozialetan** gehiago eragin, komunikabideetan... (kontu handiz egin behar da lan hau, sarritan komunikabideek luzatu dugun mezua irentsi eta buelta ematen baitiote).
- Lorpenen berri emateko **ekimen sinbolikoak** eta sortzaileak berrartu.
- **Elkartean** zeregina berrartu indarkeriaren prebentziorako eragile bezala.
- Prebentziorako **autodefentsa** feminista.



- Prebentzioa eskoletan lantzetik harago joan behar dela proposatu, **adin eta arlo guztietako jendeari** zabaldu behar zaiola alegia.

## Hezkuntza formala

- **Kohezkuntza** garatzearen garrantziari berriz ere heldu; hezkuntzan berdintasunaren eta estereotipo sexisten ispilatzearekin hautsi indarkeriak prebenitzeko, eta curriculum guztian genero ikuspegia txertatzea exijitu.
- Horretaz gainera, **irakasgai espezifikoak** egotea eta derrigorrezkoak izatea exijitu: hezkuntza afektibo-sexuala, hiritartasunerako hezkuntza, genero/berdintasun irakasgaia (egun aukerazkoa dena)... Irakasgai hauek jarraikortasunez eta hezkuntza-ziklo guztietan eman beharko lirateke.
- **Berdintasun planak ezartzea eta egonkortzea hezkuntza-zentroetan** eta berdintasuna txertatzea derrigorrezkoak diren ikasketa planetan, gerora behar bezala **ebaluatuz**.
- Garrantzitsua da lehen hezkuntzan ekitea zeregin honi -“gai gogorregia da” bezalako argudioekin hautsiz- eta **adin** guztietan lantzea, eta ez “gazteentzako gai bat” balitz bezala.
- Egun dauden kohezkuntzarako **baliabideak** identifikatu eta testu-**liburuetan** zein bestelako material eta hezkuntza-praktiketan ematen diren berdintasun-erakundeak eta indarkeriak salatu.
- **Garaipenak eta praktika egokiak** ikusgarri bihurtu.

## Hezkuntza ez-formala

- **Mugimendu feministak zein bestelako erakunde sozialek** esparru ezberdinetan egiten duten prebentzio eta formazio lana aitortu.
- Indarkeria prebenitzeko beharrezkoa da berdintasunaren ispilatzearekin eta estereotipo sexistekin apurtzea eta indarkeria matxistak arlo guztietan salatzea.
  - o **Komunikabideak:** indarkeriaren tratamendu egoki bat exijitu (zabaltzen den informazioak ez dezala arreta soilik feminizidioetan jarri, sakontasun handiagoz landu eta estereotipoekin hautsi dadila, zehatzean: salaketa faltsuena eta gizonenganako indarkeriarena), eta ikus-entzunezko eduki sexistak salatu (TB, publizitatea...). Hilero kondena-sententzien berri eman dezatela proposatu komunikabideei.
  - o **Enpresetan:** indarkeriaren aurka lan egin enpleguaren esparruan.
  - o **Familiekin:** egun indarrean dauden familien arreta programak baliatu indarkeriaren eta maskulinitate eredu berrien gaia zeharka txertatzeko.
  - o **Alderdi politikoekin:** indarkeriaren aurkako konpromisoak proposatu (hauteskunde prozesuetan adibidez).



- o Feminismoari **aitortza sinbolikoa** egitearen garrantzia: A25 plazak, emakumeen eskulturak, emakume izena duten kaleak... bai eta berdintasunezko jarraibideak txertatzea arlo guztietan (lengoaia inklusiboa).
- o Eraildako emakumeen bizitzak **dokumentatzea** gaia humanizatzeko eta azterketetan sakontzeko.

## Mugimendu feministan eta jendarte-zibilean

- **Misoginiarekin eta indarkeriaren normalizazioarekin apurtzeak** abiapuntu bezala garrantzi handia du: hainbat indarkeria motekiko arbuioa ematen da, baina ez guztiekiko ez eta diskriminazioarekiko ere (Betiseko futbol zelaian gertatu zena eta Emakume Gazteen Federazioak eman zion erantzuna horren adibide da).
- **Diskurtso oso konplexuak** lantzen inbertsio handia egiten da batzuetan, eta hauek ez dira emakume guztiengana iristen. Beharrezkoa da gure mezuak eta lengoaia eskuragarriagoak izatea jendarte guztiarengana eta gizonengana ere iristeko. Kanpainak **pedagogikoak** izan behar dira (zurrunmuru arrazisten aurkako kanpainak bezala), humanizatuak, eskubide eta prozesu legalak hitz soiletara "itzultzten" lagunduko dutenak. Mezuak argiak, errazak eta emaitza edo erantzun zehatz bat (neurgarria eta ebaluatzeko modukoa) eskatzen dutenak izan behar dira.
- **Formatu anitzetan** islatuko diren **komunikazio** estrategia indartsu eta eraginkorrak diseinatu behar dira (bideoak, txioak, testuak eta bestelako euskarriak bateragarri egingo dituztenak). **Sare sozialetan aktibismoa egin** beharra dago, bai eta bestelako komunikazio bide eta tresnak erabili ere; antzagoak eta sortzaileagoak (performanceak, ikus-entzunezkoak, sormena, ekintza deigarriak...) ekimenek oihartzun handiagoa izan dezaten eta mezua jende gehiagorengana iritsi dadin.
- Indarkerien gaiaren bozeramaile izango diren artista **aliatuak identifikatu** (Oscar sarietan gertatu zen bezala).
- **Kazetari eta komunikabide aliatuak** identifikatu gure kanpainari babesa eman eta indarkerien gaiaren bozeramaile izan daitezten.

## Arreta eta tratamendua

### Administrazio publikoari eskakizunak

- **Instituzioen arteko koordinazioaren** beharra (hainbat protokolo zehaztuta aurrera egin den arren) eta berdintasunaren eta indarkeriaren beharrezko lotura.
- **Kalitatezko baliabide eta zerbitzu publiko gehiago** exijitzea hainbat zerbitzuren pribatizazio eta prekarizazioaren aurrean: harrera etxeak, 24 orduko arreta...
- Prozeduren eta helegiteen gaineko **informazio eta datu** etarako sarbidea exijitzea (eskura daudenena eta egin direnena).
- **Arreta integrala** administrazio publikoak bermatu behar duen **eskubidea** da. Epe



luzerako arreta integrala izan behar da, ez baldintzatua: informazioa, baliabideetarako sarbidea, babes eta aholkularitza juridikoa, berreskurapena eta normalizazioa.

- Arreta integral honetan kalitatezko arreta psikologikoa (emakume eta adin txiki-koentzat) txertatu beharra dago, iraungo duena eta ez baldintzatua, eta **beste arreta elementu batzuetan** sakondu beharra dago: enplegua, berreskurapena, baliabideak, etxebizitza, arreta psikologikoa. Alderdi guzti hauek lantzen ez badira prozesuan parte hartzeari utziko diote lan egiteko beharragatik.
- Indarkeria matxistei aurre egiten dioten emakumeen **babesgabetasun handiko momentuetarako laguntza** indartu beharra dago, akonpainamenduaren bitartez: polizia-etxean jarri beharreko salaketa, profesional espezializatuen eskutik arriskuaren balorazioa eta epaitegian laguntzea.
- Ikuspegia aldatu arreta ematerako momentuan: garrantzitsuena **emakumeak** euren dira, eta ez sufritzen duten indarkeria. **Eskubideen subjektu** dira eta ez erabil-tzaile. Emakumeak indarkeriaren errudun eta arduradun egiten dituen ikuspegia- rekin amaitu beharra dago.
- Enfasia **erasotzaileengan**
  - o Kontrol poliziala erasotzaileengana zuzendu beharra dago, eta ez emakumeen- gana.
  - o Gizonekin lan egin, terapia eta ikastaroak inolako transformaziorik eragiten ari ez diren zigor-murrizketetara lotu gabe.
  - o Zigorrek ikusgai jarri eta zigorgabetasun pertzepzioarekin amaitu. Zigor-epaien datu estatistikoak hilerok argitaratu.
  - o Batez ere hezkuntzan lan egin (Istanbulko Hitzarmena) derrigorrezko bezala.
- **Profesional espezializatuak** izan daitezela, esku-hartze egokia egin dezatela eta praktika txarrak salatuz Legea ezarri dezatela exijitu.
- Arretarako **formazioan** beharrezkoa da indarkeriaren ulermenean aurrera egitea, arreta eredia sortu zeneko oinarri teorikoetara itzuli, eraldatzailea izan dadin: esku-hartzearen eta politikaren arteko lotura mantendu. Lanabes tekniko egokiak sortu eta ezartzeko beharrezkoa da ikuspegi feminista duten oinarriak izatea.
- **Profesionalen zaintza sustatzea**, ondo lan egiten duten gutxi horiek euren osasunaren eta lan-karga handitzearen kontura egiten baitute.

## Mugimendu feministak eta jendarte zibilak

- **Autodefentsa** feminista estrategia kolektibo bezala, prebentzio eta erantzun beza- la, baina ez erantzun bakar bezala, bestelako estrategien osagarri erabilia baizik.
- **Profesionalekin artikulazioa informazioa partekatze**ko, izan praktika onak zein txar- rnak. Koordinatu gaitzeen informazio "ona eta eguneratua" konpartitzeko.



- Esparru honetako **profesionalen eragite-maila** handitu bilera instituzionaletan presioa areagotuz (protokoloak sustatu, kexak idatzi), esanguratsuak diren kasuen salaketa eta ekiteko irizpide bateratuak bilatu.
- **Praktika txarrak ikusgai jarri eta salatu** euren arduradunekin.
- Esparru ezberdinetan zaintzen gaituzten **defendatzaileentzako** zaintza espazio seguru bat izatea, **zaintza-espazio orokorrak** sortuz.
- **Bizirik atera diren emakumeak aldaketarako eragile** bezala kokatu dituzten elkarteen prozesuak ezagutu: akonpainamendua, elkar-trukea...

## Esparru Juridikoa

---

### Administrazio publikoari exijitu

- Legearen betetzea, ezartzea eta garapen arauemailea exijitu.
- **Genero indarkeriaren kontzeptu juridikoa zabaltzea.** Istanbulko Hitzarmenean genero-indarkeri bezala aitortzen dira emakumeen salerosketa, indarkeria sexuala, emakumeen mutilazio genitala eta beste hainbat.
- **Aholkularitza juridikoa:**
  - o **Indarkeria** pertsonaren alderdi guztiei eragiten dion **prozesu bat** denaren kontzientzia izatea (alderdi psikologikoa, soziala, heziketari dagokiona...), eta beraz, garrantzitsua da salaketa jarri ondorengo aukera ekonomikoen gaineko aholkularitza ematea (eskubide laboralak, baliabideak, balizko laguntza ekonomikoak).
  - o **“Espezifikotasunak”** aintzat hartzea: pairatutako indarkeria mota (gutxiago ikusten diren indarkeriak kontuan hartuta), maila kulturala, edo eta, besteak beste, akonpainamendua egin dezaketen pertsonak.
- **Bere funtzioak betetzea exijitu**, bai eta maila guztietako langileen **espezializazioa** ere, beharrezkoak diren baliabideak bideratuz. Formazio orokortua exijitu: abokatuak, epaileak, polizia... eta jasotzen dituzten formazio prozesuan baloratu (edukiak, orduak eta irakasleak).
- **Arriskuaren balorazioa espezializatutako profesionalak eta elkarteek** egiteko aukera izatea (eta ez emakumeen salerosketa biktimen kasuetan gertatzen den bezala soilik poliziak) eta emakumeen euren testigantza aitortzea. Indarkeria bere tamaina guztian baloratzea: ez soilik indarkeria fisikoa, baizik eta sexuala eta psikologikoa ere.
- **Krisiak izan duen inpaktua baloratu** eta babes-prozesuetan zein judizialetan nolako eragina izan duen ezagutu.
- Prozesu judiziala:
  - o Bestelako baliabide eta zerbitzutarako sarbidea **babes-agindua** izatera baldintzatuta egotea salatu.



- o **Emakumeen testigantzei** ahotsa, garrantzia eta aitortza ematearen garrantzia, eskubide-subjektu diren neurrian.
- o Eskubide eta prozesu judizialak itzultzen eta ulertzen laguntzea: **pedagogikoa-goak** izan daitezela.
- o Indarkeria prozesu integralen gaineko **aholkularitza** eskaintzea emakumei, bai eta salaketen inguruko informazio egokia ematea ere: zer esan nahi duen, nola egin behar den, zer behar den...

## Mugimendu feministak eta jendarte zibilak

- **Profesionalekin artikulazioa informazioa partekatzeko.** Ekinbide eta erabakien erregistro bat sortu. Epaitegi batzuen zein besteen erabakiak ikusgai jarri eta praktika onak eta txarrak identifikatu. **Koordinazioa**, praktika eta emaitza judizialen gaineko informazio "on eta eguneratua" partekatzeko, baliabideak ezagutzeko eta estrategia neomaxista berriei adi egoteko.
- **Auzi estrategikoen** aldeko apustua egin (Ángela Gonzálezen kasua adibidez; senarrak alaba erail zion eta CEDAWek amari kalte-ordaina ematera zigortu du Gobernuak). Ez zaio behar adinako jarraipen egin. Ematen du ardura zuen justizia ministroak legegitza zerrenda luzea bidali zuela bere burua justifikatzeko, baina hori ez da CEDAWek nahi zuena. Herri Ekimen (IP) bat izan zitekeen.
- **Torturaren aurkako Istanbulko Protokoloa** edo eta **Biktimen Estatutua** bezalako tresnak erabili, bai eta -beste indarkeria kasu batzuetan bezala- erreparaziorako eskubidea exijitzea muturreko kasuetan.
- **Sententzia txarren jarraipena egin** (Emakume Progresisten Federazioak bezala) eta Topaketa Puntuekin.
- Sententzietako **lorpenak aditzera eman kolektibizatu** daitezzen.



## II. KAPITULUA:

# EMAKUME UGARI BORROKALARI. INDARRAK BATUZ INDARKERIA MATXISTEN AURKA



Kapitulu honetan 2015eko ekainak 4 eta 5ean Bilbon egindako Indarrak batuz indarkeria matxisten kontra. *Emakume ugari borrokalaria-En la lucha somos muchas. Sumando fuerzas contra las violencias machistas*<sup>16</sup> topaketan landu ziren eduki nagusiak jaso ditugu.

Topaketaren hasieran adierazi genuen bezala, arlo ezberdinetako 70 pertsonen parte hartu genuen topaketan bi zeregin nagusiri heltzeko:

- Indarkeria matxistei aurre egiteko moduaren diagnostikoan sakontzea esparru ezberdinetatik.
- Indarkeria matxisten aurkako borrokan dagoeneko abiatutako estrategia ezberdinetan zein aurrerantzean landu beharreko beste hainbatetan sakontzea.

Publikoari irekita zegoen topaketaren lehen jardunaldia aurreko topaketen errepasoarekin abiatu genuen parte hartzaileek prozesuaren zein puntutan geunden jakin zezaten.



Lehen ponentziak, aurreko topaketetan indarkeria matxisten egungo egoeraz ateratako ondorio nagusiak aztertu zituen. Erradiografia hau indarkeria egoeretan bizi diren emakumeekin batera lan egiten duten profesionalen eta feministen ikuspegitik egin zen. Lehenik eta behin azpimarratu beharra dago proiektu honetan 200 emakume eta 100 kolektibotik gora inplikatu direla. Ateratako ondorioek indarkeria matxisten erradikazioaren aldeko borrokaren balizko lan-lerro nagusiak marrazten dituzte.

Ponentzia hau osorik eskuragarri dago argitalpen honen lehen kapitulan: Diagnostikoa: indarkeria matxisten aurkako estrategiak eta korapiloak.

Goiz horretan bertan, indarkeria matxisten aurkako borrokan ezinbestekoak diren lan-esparru ezberdinetan adituak diren lau emakumek hartu zuten hitza: esparru legegilea,

<sup>16</sup> [www.mugarikgabe.org/blog/2015/05/22/jornadas-en-la-lucha-somos-muchas-sumando-fuerzas-contra-las-violencias-machistas](http://www.mugarikgabe.org/blog/2015/05/22/jornadas-en-la-lucha-somos-muchas-sumando-fuerzas-contra-las-violencias-machistas)



juridikoa, hezkuntza-esparrua eta arretarena landuz argitalpen honetako I. Kapituluari jasotako diagnostikoa hobetzeko helburuarekin.



## DIAGNOSTIKOAN SAKONTZEN

Esparru arau-emaileak dituen gabezien, eta esparru legegiletik, juridikotik, arretarenetik zein hezkuntzatik instituzio publikoek abiarazten eta ezartzen dituzten tresnen analisi kritikoa<sup>17</sup>

### Esparru Legegilea eta Juridikoa

Lehen hizlaria María Naredo<sup>18</sup> izan zen eta lehenengo egunean proiektatu zen bideo baten bitartez parte hartu zuen Topaketan. Bere hitzaldian nabarmendu zuen agenda feministak indarkeria matxisten gaineko eztabaidari berriro heltzeak garrantzi handia duela: Lege Integralaren onarpenaren ondoren gaia albo batera utzi behar dugu? Feministok Legeari lotutako eztabaidak jarraitu ditugu? Eta bere ezarpena? Naredok egungo legegidiaren gabeziak aztertu zituen eta jasota ez dauden bestelako indarkeria matxisten inguruko legeak egitearen garrantzia azpimarratu zuen. Era berean, murrizketek indarkerien prebentzioan izan duten eragina azaldu zuen. "Aurrekontu hauek gaizki abiatu ziren eta oraindik eta okerrago daude orain" baieztatu zuen.

Legea onartu eta hamarkada bat igarota, Genero Indarkeriaren aurkako Babes-neurri Integralen abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren balorazioa egin zuen Naredok.

Praktika on bat bezala jaio zen Legea, eta European aitzindaria izan zen bezala, gaur egun ere salbuespen bat izaten jarraitzen du. Hala ere, eta begirada mundu mailan kokatzen

<sup>17</sup> Audio guztia entzungai dago hemen: <https://soundcloud.com/mugarikgabe/primera-mesa-emakumeborrokalari>

<sup>18</sup> María Naredoren bideoa eskuragarri hemen: <https://vimeo.com/130958651>



badugu, aurrerapen handiagoak dituzten legeak topatuko ditugu Latinoamerikan (Mexikon, Venezuelan, Kolonbian, El Salvadorren).

Legearen gabezi handienetako bat, jasotzen duen indarkeria motari dagokionean partziala izatea da.

Mugimendu feministak Legea onartzeko borrokan parte hartu zuen, baina lehenengo urte horietan ez zitzaion legearen ezarpenaren exigentziari lehentasuna eman, zorionez, gaur egun egiten ari dena. Kontuan izan beharra dago mugimendu feministak gerora betetzen ez diren edo eta aurrekontu nahikoarik ez duten lege eta planekiko nekea sentitzen duela.

Hamar urte bete ondoren ere, Legeak oraindik ere zailtasun asko ditu: paperetan jasota dagoen legea da, ez aldiz errealitatean, bere ezarpenak ez baitu ondorio positiborik emakumeen bizitza-eskubideetan. Traba eta oztupo ugari ditu legeak, batez ere bere ezarpenean.

Legeak zekarren guztia abiarazteko diru nahikorik ez da inoiz ere ez inbertitu, eta beste diru-partidekin alderatzen badugu (armadan errekrutatzeako kanpainak, bide segurtasunerakoak...) askoz txikiagoak dira partida hauek. Honek agerian uzten du hau ez dela gobernuen lehentasuna. Gogora ekarri beharra dago Legea ez betetzea ardura instituzionalei uko egitea dela.

Nabarmentzekoa da era berean, Legea ez dela prebentzio eta emakumeekiko laguntza-integralaren esparruan garatu. Autonomia Erkidego batzuetan beste batzuetan baino gehiago egin da aurrera, baina ezarpen homogeen eta oso bat falta izan da.

Emakumeekiko laguntza-integralak laguntza psikologikoa, juridikoa, etxebizitzarako sarbidea eta lan-munduan integratzeko beste laguntza mota batzuk jasotzen ditu, eta azpimarratzekoa da zenbait Erkidegok alderdi hauek garatu dituztela, baina gutxieneko estandar batzuk zehaztea falta izan da, bai eta bere ezarpena Autonomia Erkidego bakoitzeko kontseilaritzaren menpe ez geratzea ere -erkidegoaren edo kontseilaritzaren sentikortasunaren arabera ez dadin izan-. Kasu guztietan eskuragarri egon behar duten gutxieneko baliabide batzuk bermatu beharra dago.

Gainera, eskakizunak ikuspegi asistentzial batekin zehaztu dira eta emakumeak eskakizun horietara egokitzea bilatu da, alderantziz izan beharrean; eskakizunak emakumeetara egokitzea alegia.

Justiziarik dagokionean, indarkeria matxistaren egitura ulertzeko ezinbestekoa da gaiaren konplexutasuna ezagutzetik eta ulertzetik abiatzea. Alabaina, justiziak jazoerak pilatzen jarraitzen du eta ez du indarkeriaren gaineko ikuspegi integralik. Era berean, praktika txarrak etengabe ematen dira: salaketa gurutzatuak berdinen arteko indarkeriak balira bezala; seme-alaben zaintza (seme-alabak ez dira harremanaren eranskin bat eta ez da ahaztu behar harremanak patriarkatuak zeharkatzen dituela). Neomatxismoak irabazle ateratzen ari dira esparru juridikoan, Legearen ikur nagusi zen horretan.

Beste alde batetik, emakumeen arretarako espezializatutako epaitegien justiziarako sarbidea bete gabeko promesa bat da, Legearen aurreko oztupo berdinek indarrean jarraitzen baitute.

Legea ebaluatzeko orduan kalitateari erreparatzen badiogu galdera ondorengoa da : Zer exijitzen dugu baliabideei dagokionean? Urte hauetan ikusi dugu baliabideez erlijio-orde-



nak eta eraikuntza-enpresak ere arduratu izan direla, eta horren ondorioz Legearen ezarpena ez da bermatu.

Politika publikoen inpaktuari buruzko ebaluaziorik ez da egiten, eta Lege hau ez da salbuespena. Indarrean sartu eta hiru urtera egin zen ebaluazioa neurri katalogo bat izatera mugatu zen, ez ezarpena ez eta eragina ere aztertu ez zuena. 2009 urtean parlamentuko azpibatzerde batek balorazio erronda bat egin zuen, emaitzek Gobernuaz ez zutelako behartzen oso argi utzi zuena. Zerbitzu horiek erabiltzen dituzten emakumeekin balorazio parte-hartzaile bat egin behar da, euren eskubideak baitira kolokan daudenak.

Aurrekontu gaitan opakutasun handia egon da, oso zaila delako Autonomia Erkidegoen zein administrazio zentralaren aurrekontu guztien arrastoari jarraitzea. Hala eta guztiz ere murrizketak egon direla baieztatu dezakegu, 232C bezalako diru-partidak adibidez -espezifikoa denak- murrizketa garrantzitsua izan baitu.

Hasieratik sumatzen zen aurrekontu falta, eta aurrekontua da hain zuzen ere ezarpenarako gako nagusia. Zulorik handiena prebentzioaren arloan eman da, inolako lehentasunik izan ez duen esparruan. Laguntza-integralaren esparruan ere murrizketak eman ziren 2007an, aurrekontuen jaitsiera batekin. Hortik aurrera Autonomia Erkidego eta udal bakoitzaren esku gelditu da norbera ahal bezala antolatzeko ardura. Ez zegoen gutxieneko aurrekontuak egongo zirenen bermerik, ez eta baliabideen gutxieneko kalitatearen edo eta arlo hauetan lanean ari ziren pertsonen lan-baldintzen inguruko bermerik ere.

Legearen 10 urteotako balorazioaren ondorio bezala hainbat urte zerrendatu daitezke:

- 1) Legearen ikuspegi beste indarkeria mota batzuetara zabaltzea (indarkeria sexualak lan-esparruan, ikasketen esparruan, eremu publikoan, familia-kideek bortxatutako neska...) indarkeria hauek arreta, datuak eta espezializazioa eskatzen dutelako 2004ko Lege-integralaren ikuspegi murriztaren aurrean (bikotea, bikotekide-ohia).
- 2) Ikuspegi heterogeneoa izatea, askotarikoa. Legearen ezarpenean diskriminazio legalak eman dira. Askotariko ikuspegi hori izan beharra dago emakume migratzaileak, egoera irregularrean bizi diren emakumeak, salerosketaren biktima izan direnak, asiloa eskatu dutenak edo eta dibertsitate funtzionala duten emakumeak indarkeriarik gabe bizi ahal izango direla bermatzeko. Emakume hauek ez dira baliabideak eskuratzeko aukera duten emakumeen profilean sartzen.
- 3) Egun dauden eskaerei irteera ematea. Tokian tokiko baliabideez ari garenean, zertaz ari gara? Zer baliabide mota dago? Zenbat? Kalitate bermerik ba al dute? Pozik al daude emakumeak? Galdetu egin beharra dago, eta mahai gainean dauden eskaerei erantzun.
- 4) Emakumeek epaitegietan bizi duten indarkeria instituzionalekin bukatu beharra dago. Inoiz edo behin salaketa bat edo besteren berri entzuten da, baina ohikoan komunikabideek arazo hau ikusezin egiten dute. Legea ez da betetzen ari, ez eta justiziarako, babeserako edo eta indarkeria matxistaren zigorgabetasun ezarako Giza Eskubideekin harremana duten Hitzarmenak ere.
- 5) Erreparazio-eskubidea bermatzea bere lau alderdietan: kalte-ordaina, berriro ez gertatzearen bermea, erabateko berreskurapena eta egiaren zabalkundea eta aset-



zea. Indarkeria matxisten kasuan zeharo ahazten dira alderdi hauek, beste Giza Eskubide batzuen urraketan ez bezala.

Ikuspegi juridikotik, Isabel Quintana<sup>19</sup> prokuradore eta Argitan<sup>20</sup> eta Brujas y Diversas<sup>21</sup> elkarteetako kideak epaitegietan lan egiten dutenek, indarkeria matxistak pairatu dituzten emakumeak laguntzen dituztenen formazio eta profesionalizazio ezagatik gaudituz behar izaten dituzten oztupoak eta traba legalak nabarmendu zituen. Epaiketa azkarretan adibidez, emakumeak epaitegira jotzera behartzen dituzte prozesu luze eta oso mingarri bati aurre egiteko beharrezko den prestakuntza emozional eta legalik gabe. Justizia ez da arantzarik gabeko bidea, eta sarritan, emakumeak bakarrik eta babesgabe sentitzen dira. Quintanak gainera, emakumeak eskubide subjektu bezala hartzearen garrantzia azpimarratu zuen, hartzen dituzten erabakiak zein nahi direla ere.

Legeak 10 urte bete dituenean, panorama atsekabegarria da. Urteroko heriotzak natural bihurtzen ditugu, eta azken hamarkada honetan 800 izan dira eraildako emakumeak.

Salaketa kopuruak behera egin du emakumeek ez dutelako salaketa aukera bideragarri bezala ikusten. Era berean, salaketa jarri baina prozesuaren erdian atzera egin duten emakumeen kopuruak ere gora egin du. Zergatik erabakitzen dute atzera egitea?

Hainbat dira azpimarratu beharreko alderdiak; epaiketa azkarra izango dela jakinarazten zaie-nean adibidez, emakumeek itxaropen faltsuak izaten dituzte, prozesu oso luzeak izaten baitira, higadura handia sortzen dutenak. Informazio hau hasieratik izango balute agian el lukete salaketa-eraketa ere jarriko.

Bestalde, eta prozesua bertan behera uzten duten emakumeen arrazoen azterketa baten faltan, operadore juridikoek lagatze honi buruzko euren azterketa subjektiboak egiten dituzte, emakumeak euren jokabideagatik zalantzan jarri.

Kontra-salaketek ere egoera hau indartzen dute, kasuaren ikuspegia galdu, indarkeria matxistak ahaztu eta salaketa kontra-salaketa batuketan batean sinpletzen da gutzia.

Era berean, salaketa faltsuen mitoaren ondorioz, emakumeak eskubide subjektu bezala ikusi beharrean baliabideen onuradun bezala hartzen dira gero eta gehiago, eta beraz, eurekiko susmoa etengabea da. Gainera, kausen artxibatzea salaketa faltsuak izatearekin lotzen da.

Langileen formazioa behar beharrezkoa da fiskaltzan, abokatutzan, epailetzan, osasunaren esparruan, informazio zentroetan, polizia... indarkeria matxisten gaineko formazio espezifiko gutxi dagoelako, are eta gutxiago genero aniztasuna eta berdintasun ezak aintzat hartzen dituen formazioa. Euskal Herrian ikerketa bat egin zen profesional hauek gai honen inguruan jaso zituzten ikastaroen eta erantzunak oso esanguratsuak izan ziren: %65ak formazioa handitzeko beharra ikusten zuen, % 60ak jasotako formazioaren kalitatea handitzeko, % 73ak emakumeen jokabideak ulertzeko formazio espezifikoaren beharra, eta erdiak baino gehiagok arretarako lanabes pertsonalak eskatu zituen. Nabarmentzekoa da era berean indarkeria-epaitegie-

<sup>19</sup> Liz Quintanari egindako elkarrizketa ikusgai hemen: <https://vimeo.com/130958587>

<sup>20</sup> <http://argitan-barakaldo.kzcomunidades.net/es/html>

<sup>21</sup> <https://www.facebook.com/Brujas-y-Diversas-Sorgin-eta-Anitzak-528993970572413/timeline>



tan langile asko behin-behinekotasunean daudela, eta aztertu beharreko gaia litzateke bertatik pasatzen diren langile guztiak espezializatuak ote dauden.

Emakumeek epaitegietan jasotzen duten tratua ezin okerragoa da eta emakumeek eurek oso negatiboki baloratzen dute, eta fiskaltza da okerren baloratutakoa. Gainera, emakumeek konstatzen duten horrekiko konfiantza falta handia dago, eta egoera hau okertu egiten da emakume migratzaileen kasuan, non aurreiritzi eta estereotipoak handiagoak diren. Kasu askotan emakumeak eskubide-subjektu bezala hartu beharrean baliabideen onuradun bezala hartzen dira.

Beste alde batetik, prozesuaren zein prozeduraren gaineko informaziorik ez duten emakume asko dago, hiztegi konplexu bati aurre egin behar izaten diote, eta erabakiak azkar hartzea exijitzen zaie.

Era berean justizia doakoa dela uste da, eta prozesu guztiak ez dira doakoak, gai honen gaineko informazio okerra zabalduta dago. Ematen zaien informazioaren ondorioz, imaginario kolektibo bat osatu da zeinetan pentsatzen den salaketa jartzen duen emakumeak ez duela arazo ekonomikorik izango, baina errealitatean egoera bestelakoa da; baliabideak eskuratzeko emakume askok betetzen ez dituzten irizpide espezifiko batzuk zehazten dira edo eta administrazioak berak irrealak diren eta emakumeen bizitza ere arriskuan jartzen duten izapide batzuk exijitzen ditu. Etxebizitza baten jabeak den eta etxea seme-alabekin uzten duen emakumeari adibidez, beste etxebizitza bat eskuratzeko utzi duen etxebizitza horri errentagarritasuna ateratzea exijitzen diote (zeinetan bere erasotzailea bizi den); elikagai-pentsioa eskatzeko derrigorrezkoa da banaketa sententzia judicial bat izatea, bere erasotzaileak non dagoen jakin ez dezan ezkutatu nahi arren.

Zaintza behar duten menpeko-emakumeen kasuan indarkeria oraindik eta ikusezina dago, kasu hauetan indarkeria oraindik eta sotilagoa baita; nahikoa da emakumeak behar duen zaintza ukatzea; ez elikatzea, edatekorik ez ematea...

Azkenik, belaunaldi berrietan indarkeria matxistak indarrean daudela eta gainera ez direla horrela antzematen nabarmendu beharrean gaude. Indarkeria matxista errefusatzeko duen diskurtsoaren eta praktikan garatzen duten kontrol zein jazarpenaren artean kontraesana dago (teknologia berrien bidez egiten den kontrola adibidez). Indarkeria ikustarazi eta aitortzeko zailtasunak daude. Gainera, indarkeriaz hitz egiten den gehienetan, Legean jasotzen den hori kontzeptualizatzen da (bikotean edo bikotekide ohiarekin ematen den hori baino ez), eta horren ondorioz beste indarkeria motak ikusgarri egitea kosta egiten da, eta beraz gazte jendea ez da identifikatua sentitzen.



## Arreta eta Tratamendu esparrua

Natividad Veraguas<sup>22</sup> Dones amb Empenta<sup>23</sup> kolektiboko kideak azaldu zuen murrizketek eta borondate politiko faltak eragina izan dutela biktimekiko arretan eta deribazioak kale egiten dutela. Era beran herritarrek indarkeria egoera baten aurrean esku-hartzeko orduan dituzten baliabideak azaldu zituen. Gomendiorik onena? Biktima errespetatzea.

Estatuko legea onartzearekin batera problematika bateratu eta eskubideak aitortzen dituen arreta integralaz hitz egiten hasten da, baina era berean Legeak bikotearen esparruan ematen ez diren beste indarkeria matxista asko ikusezin bihurtzen ditu.

Katalunian Generalitateak 2008ko apirilaren 28ko Llei del dret de les dones a erradicar la violència masclista Lege katalana onartu zuen. Lege honetan marko ideologikoa berrinterpretatzen da genero indarkeria kontzeptua gainditu eta indarkeria matxistez hitz egiten hasiz (bikotean, familian, lanean zein komunitatean ematen den indarkeria, mutilazio genital femeninoa, behartutako ezkontzak, esplotazio sexueralako salerosketa, ezezagunek gauzatutako indarkeria sexuala, adin txikiko nesken abusa). Baina arreta zerbitzua autonomia erkidegoen kompetentzia den arren, Kataluniako Legea estatuko Legearen menpe dago, hau da, ezin da termino penaletan esku-hartu.

Baliabideen sare publikoaren ezarpenerako Katalunian lanabesak sortu ziren: SIAD-ak (emakumeentzako informazio eta arretarako) eta SIE-ak (arreta eta berreskurapenerako). Baina zerbitzuak administrazioetik kanpora atera ziren, eta zerbitzu horien kudeaketarako lehiaketa publikoetara hirugarren sektoreko enpresak eta eraikuntza arloko zenbait ere aurkeztu ziren.

Hau horrela izanik, ondorengo galdera mahaigaineratu beharrean gaude: arretarako baliabideak ez badituzte entitate feministek kudeatzen, nork erabakitzen du arreta-eredua?

Guk uste dugu arreta eredu feminista egoki bat dagoela, indarkeria ulertzeko modu jakin bat, indarkeria egoeran dauden emakumeekin erlazionatzeko modu bat, eta hori dela hain zuzen ere ezarri behar den eredu.

Katalunian Generalitateak zehazten du arreta-eredua. Gaur egun protokoloak, ebaluazio eta sistematizazio tresnak, ezarrita daude, kontaezinak diren eskaletara garamatzatenak eta orientabide bat izan beharrean ez pentsatzera bultzatzen gaituztenak.

Nabarmendu beharreko oztopo hau ere antzematen da: bi legeekiko (estatukoa eta katalana) erresistentzia ideologiko bat ematen da, krisi ekonomikoak justifikatu duena. Arreta zerbitzuak familiarentzako arretan lausotu dira, eta modu horretan legeen ikuspegi eta eduki ideologikoa galdu egin da.

Arretaren esparrutik egoera honi ematen ari zaion erantzuna emakumeak indarkeria instituzionaletik babestearena da. Horretarako, profesionalak feministak izatearen beharraz hitz egin behar da, hori izango delako arreta egokiaren bermea.

<sup>22</sup> Natividad Veraguasi egindako elkarrizketa ikusgai hemen: <https://vimeo.com/131071414>

<sup>23</sup> [www.dae.cat](http://www.dae.cat)



Garrantzitsua da emakumeak eskubide-subjektu bezala eta egoera horretatik atera daitezkeen pertsona bezala kokatuko dituen arreta-esparru feminista bat adostea; prozesua -arretaren unetik berreskurapenarenera- ariketa politiko bat dela aintzat hartuta, eragite-politikoaren denaren jakitun, politika egiten ari zarenaren jakitun, azken finean erlazioatzeko modua ere politika delako. Hausnartu gabe esku-hartu daitekeela sinestarazten duten Protokolo-ereduen alternatiba izango den arreta-esparru bat alegia.

Arreta-profesionalaren lanabes nagusia bi pertsonen arteko harremana da; emakumea nola kokatzen den, nola garatzen den posizionamendu hori eta nora arte iristen den. Berreskurapena ebaluatzeko joera modan jarri da orain, eta berreskurapena emakumeak berak zehaztu behar du nora arte iritsi nahi duen zehaztuz, eta ez profesionalak. Helburuak emakumeak berak zehaztu behar ditu.

Ematen du genero ikuspegia duten azterketak daudela eta ez da horrela, ematen du formazio espezializatua dagoela eta ez da horrela. Profesionalen formazioan erresistentzia asko topatzen dira, ez da esparru teoriko eta kontzeptualaren gaineko ezagutza eskatzen, esku-hartzerako lanabesak eskatzen dira, esku-hartzerako lanabes nagusia esparru kontzeptual hori dela ulertu gabe.

Indarkeria presio-eltze bat balitz bezala esku-hartu daitekeela pentsatzen duen eredia okerra da. Indarkeria salda geldo bat bezala egosten da, eta beraz, indarkeria-ezak ere denbora behar du, erlazioatzeko modu desberdinak.

Elkarrekin eraiki ahal izateko erronka interesgarria besteekin erlazioatzeko modu horri lengoia zientifiko bat ematea da, zuri-zeuri gertatzen ari zaizunaz pentsatzea, arreta-eredu egokia hau dela defendatzeko, eta ez hamaika eskala pasarazi eta hamaika esku-hartze protokolo ezartzen dituen eredia.

## Hezkuntza Esparrua

María del Mar Zamora<sup>24</sup> Asociación en Defensa de la Imagen Pública de la Mujer<sup>25</sup> elkar-  
teko kideak indarkeria matxistei aurre egiteko hezkuntzak duen garrantzia aztertu zuen  
hezkuntza-erreformak aztertuz. Zamorak azaldu zuenez, HSAOL-a (LOGSE-a) izan den  
emakume eta gizonen arteko berdintasuna bere printzipioetan jaso zuen lehenengo  
hezkuntza-erreforma. Genero Indarkeriaren Lege Integralaren arabera estatu espainia-  
reko eskola guztietan genero kontuetan formazioa duten langileak egon beharko lirateke.  
Lirateke, lirateke, lirateke.

Indarkeria matxista hezkuntzatik eta eskola publikotik borrokatu daitekeenaren aldeko apustu garbi bat dago.

1970etik hezkuntzak estatu espainiarrean aldaketa asko bizi izan ditu. Horren adierazle dira urte horretatik hasita gaur artean onartutako zazpi hezkuntza-legeak. Baina era berean egia da estatuan hiru izan direla indarkeriaren prebentzioaren gaian hezkuntza egituratu duten legeak (berdintasunaren edo indarkeriaren aurkako legeez gainera, zeintzuek hezkuntzari buruzko atal bereziak dituzten):

<sup>24</sup> M<sup>a</sup> del Mar Zamorari egindako elkarrizketa ikusgai hemen <https://vimeo.com/130958624>

<sup>25</sup> <https://es-es.facebook.com/adipmujer>



- 1970eko Hezkuntza Lege Orokorra, derrigorrezko hezkuntza 14 urtera arte luzatu zuena.
- 1990eko Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legea (LOGSE), ko-hezkuntzarako oinarriak ezarri zituen,
- eta azkenik 2006ko Hezkuntza Lege Organikoa, Hiritartasunerako Hezkuntza eta Giza Eskubideak irakasgai bezala jaso zituen.

Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko Abenduaren 9ko 2003/8 Lege Organikoa (LOMCEa) aurreko bi legeak indargabetzeko bokazioz jaio zen, hezkuntza-helburuak estatuan bete ez izanaren arrazoia medio. Lege honek hiritartasunerako hezkuntza irakasgai kendu eta sexuen arteko bereizketa sustatu zuen.

2012 eta 2015 urte bitarteko hezkuntza aurrekontuak aztertzen baditugu, A las elecciones con tacones y maquillaje<sup>26</sup> informearen arabera, hezkuntzan egindako inbertsioan atzera egin da Balear irltako, Euskadiko eta Extremadurako Autonomia Erkidegoetan ez beste guztietan. Beherakada handiena Aragoi eta Madrilen eman da, Asturias eta Valentzia dira zerrenda horretan hurrengoak. Emakume eta gizonen arteko berdintasuna erdiesteko esparru erabakigarria da hezkuntza, eta aurrekontu murrizketek eragin negatiboa dute bide horretan.

Andaluziako Juntari dagokionean, genero ikuspegia duen aurrekontua du 2014tik. Hezkuntza arloko aurrekontu planifikazioan genero ikuspegia txertatzeko Kontseilaritzak lanabes bat du: I. Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasun Plana Hezkuntzan. Plan hau genero arrazoiengatiko berdintasun-erak murrizteko tresna beharrezkoa eta garrantzitsua da. Bi maila bereizten ditu:

- 1) Lana eta familia-bizitza bateratzera bideratutako baliabideak, hezkuntza esparruko bi aurrekontu-programa dituen: Familiak Laguntzeko Zerbitzua eta Lehen Haurtzarorako Hezkuntza.
- 2) Kulturaren eta hezkuntzaren esparruan oso errotuta dauden eta zeharkako izaera duten balio eta estereotipoetan eragitera bideratutako baliabideak.

Hezkuntza Ebaluazio Agentzia Andaluziarrak egindako ebaluazioan ikastetxeetako zuzendaritza egituretan emakumeek duten parte hartze handia nabarmentzen da, bai eta genero ikuspegia duten plan, proiektu eta programetan irakasleek duten inplikazio eta parte-hartze handia ere.

Indarkeriaren prebentzioa hezkuntzan garatzeko aurkitzen dituzten zailtasunen artean hauek nabarmentzen dira:

- LOMCEak "Hiritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza" eta "Hezkuntza etiko-zibikoa" irakasgaiak kendu izana eta "Filosofia eta Hiritartasuna" irakasgaiaren bigarren zatia aldatu izana, zeinetan sexuen arteko berdintasun gaiak lan-tzen ziren.

<sup>26</sup> [www.fsc.ccoo.es/comunes/recursos/99922/doc222262\\_Presupuestos\\_del\\_Estado\\_para\\_2015\\_\\_a\\_las\\_elecciones\\_con\\_tacones\\_y\\_maquillaje.pdf](http://www.fsc.ccoo.es/comunes/recursos/99922/doc222262_Presupuestos_del_Estado_para_2015__a_las_elecciones_con_tacones_y_maquillaje.pdf)



- Aurrekontuen murrizketa.
- Eskola erlijiosoak eta bananduak: hezkuntza bananduko 60 hezkuntza zentro daude Estatuan eta horietako 24 Opus-arekin erlazionatuta daude. Erlijioa arazo handi bat da, Andaluzian bezala, oso hedatua dagoen lurraldeetan batez ere.

Egoera honen aurrean, ondorengo proposamenak luzatzen dira:

- Estatu-akordio feminista bat hezkuntza oinarriak ez daitezen gobernu aldaketan menpera aldatu.
- Konkordatuaren desagertzea.
- LOMCEa indargabetzea emakume eta gizonen arteko berdintasunari eta indarkeria matxistaren prebentzioari dagozkion eduki espezifikoak desagerrarazten dituelako.
- Langile guztientzako berdintasunaren eta indarkeria-ezaren esparruetan trebatzeko formazio plan iraunkorrak sustatzea aktibismo-feministan lan egiten duten emakumeen eskutik (eta ez masterrak dituzten baina feministak ez direnen eskutik).
- Estereotipo sexistarik eta lengoia diskriminatzaileak gabeko curriculumerako eduki eta materialak prestatzea.
- Espezializatutako pertsona baten parte hartzea bermatzea Eskola Kontseiluetan hezkuntza-neurriak sustatzeko.
- Bereziki haurrei, nerabeei eta gazteei zuzendutako zabalkunde eta sentsibilizazio kanpainak abiatzea hezkuntzaren, publizitatearen, komunikabideen eta informazioaren teknologia berrien esparruetan.

Topaketaren lehen jardunaldiko bigarren mahai-ingurua amaituta, Santiagoko Katedralera abiatu ziren parte-hartzaileak **WOMEN IN BLACK indarkeria matxisten aurkako performancea** egitera. Mujeres Imperfectas<sup>27</sup> taldeak sustatuko ekimena estatuko beste hainbat tokietan errepikatzen ari da. Ekintza honek topaketan etengabe mahaigaineratu zen behar bati erantzuten zion: mobilizazio sozialaren gainean berriro ere pentsatzeko beharra, politikan eragiteko modu berriak sortzeko beharra hain zuzen ere. Ekintza erraz eta ikusgarria da: beltzez jantzitako emakume talde bat lurrean etzaten da kale erdian geldi, euren gorputzen silueten markei begira minutu bateko isilunea egiteko gero. Helburua? Indarkeria matxistaren larritasuna ikusgarri egitea, jendartean oharkabean pasatzen dela ematen du eta.

<sup>27</sup> <http://mujeresimperfectas.blogspot.com.es>







## INDARKERIA MATXISTEN AURKAKO ESTRATEGIAK EZAGUTZEN

Topaketa guztian Ecuador Etxea28-ren ZAPATA GORRIAK instalazioa ikusgai egon zen salaketa forma guztiak presente egoteko helburuarekin, esparru artistikokoak ere. Zapata Gorriak Elina Chauvet artista mexikarraren Arte Publikoaren Instalazioan indarkeria matxista bere isla guztietan salatzen da. Zapatak desagerpenaren lekukotza adierazten du eta lanaren bitartez emakumeen giza-eskubideen urraketa salaketa publikoa egiten da, bai eta emakumeen, gazteen eta neskatxoaren erailketen aurrean jendarteari justizia exijitzeko eta elkartasuna adierazteko aldarrikapena zabaldu ere.

28 [http://ecuadoretxea.blogspot.com.es/p/bloa-paee\\_5.html](http://ecuadoretxea.blogspot.com.es/p/bloa-paee_5.html)



## Esku-hartze sozial eta juridikorako estrategiak. Ekimenen azterketa

---

“Esku-hartze sozial eta juridikorako estrategiak. Ekimenen azterketa” izenburua zuen bigarren jardunaldiko lehen mahai-inguruan estatu espainiarrean garatutako indarkeria matxisten aurkako hainbat ekimen ezagutzeko aukera izan genuen.

Lola Fernández<sup>29</sup> Incide<sup>30</sup> elkarteko kideak “Kontatu Nirekin” (“Cuenta Conmigo”) proiektuko esperientziaren berri eman eta indarkeria matxistetatik bizirik atera diren emakumeak eurek beste emakume batzuen berreskurapen prozesuetan laguntzeak duen garrantzia azpimarratu zuen.

Laura Bañosek bera kide den *Indarkeria Matxistei Erantzuteko eta Erresistitzeko Sarea (Red de Resistencia y Respuesta a las violencias machistas)*<sup>31</sup> zer den azaldu zuen, bai eta nola sortu zen, nola egiten duten lan, zeintzuk diren euren ikaskuntzak eta zein ahulgune izan dituzten ere.

Laia Serra abokatu katalanak eta Dones Juristes<sup>32</sup> kolektiboko kideak bere Ibilbide Judizialean ahalduz (Empoderándonos con los itinerarios judiciales) ponentzia azaldu zuen. Mugimendu feministaren eta epailetzako profesionalen artean aliantzak sortzeak duen garrantzia azpimarratu zuen bere hitzaldian.

Hizlari hauetako bakoitzak azaldutako ideia nagusiak jarraian jasotzen dira:

### Bizirik atera diren emakumeak indarkeriaren aurkako borrokan subjektu aktibo

---

“Kontatu nirekin” proiektuan kokatutako ekimena tresna berri bat sortzeko beharraren testuinguruan sortu zen. Eurek kudeatzen zituzten zerbitzuetara enplegu arazoak zituzten emakume askok jotzen zutela ikusi zuten, baina arazo horien atzean bikotean emandako indarkeria matxistaren sintoma garbiak antzematen zituzten. Bi behar identifikatu ziren beraz: enplegu orientatzaileentzako genero indarkeria detektatzeko formazioa, eta eskaera honi erantzun ahal izateko espazio propio baten beharra. Beharrian hauen ondorioz jaio zen programa.

Indarkeriaren biktima izandako emakumeen ahalmenak sustatuko zituen baliabide bat bilatu zen, euren egoera interpretatzen jakitea zelarik alderdi garrantzitsuena. Bat ere erraza ez den bidea da hau, baina aldaketarako gakoa da, eta horrela emakumeekin lan egiten da. Euren bizitza-esperientziatik abiatzea ezinbestekoa da, eurekin, euren erritmoekin eta euren erabaki hartzeekin errespetu handia izanez beti ere. Programa konpainia-egitean oinarritzen da (intentsitate aldakorreko konpainia) eta emakume bakoitzak

---

29 Lola Fernándezi egindako elkarrizketa ikusgai hemen: <https://vimeo.com/130958652>

30 [www.incide.org](http://www.incide.org)

31 <https://es-es.facebook.com/red.resistenciarespuesta>

32 [www.donesjuristes.cat](http://www.donesjuristes.cat)



bere beharrizanetara egokituko den ibilbide orria izatean.

“Hiritarren eskubidea” oinarritzko elementuan oinarritzen da metodologia; emakumeen protagonismotik eta euren erabakiak hartzeko duten hiritar-eskubidetik abiatuta. Emakumeak gainditze-prozesu batean sartuta daude, prozesu luzearen puntu aurreratu batean, eta helburua beste emakume batzuen erreferentzia izatea da.

Emakume hauek hautatzeko banakako elkarrizketak egiten dira, garrantzi handia duelako emakume bakoitza zein puntutan dagoen jakitea eta lanerako zein abilezia duten ezagutzeari. Esku-hartzea osatzeko, entitatearen beste baliabide batzuk erabiltzen dira; enplegua, haurtzaroa...

Proiektuaren zabalpena sare sozialetan eta web-guneetan egiten da, eta Andaluziako Emakumearen Institutuen zein hainbat udaletako berdintasun arloen laguntza du.

Programa hainbat fasetan banatzen da:

- Formazio prozesua: eduki hauek lantzen dira; genero-sentsibilizazioa, indarkeria bikotean eta konpainia-egiteko gaitasunen garapena.
- Beharrizanen eta helburuen identifikazioan oinarritzen diren laguntza-prozesuak (enplegu kontuak, indarkeria baliabideak edo gizarteratzeko errenta aktiboak); administrazioari edo baliabide propioei lotuta dauden emakumeen sarea eta konpainia-egitea (maila sozialeko kudeaketak, polizia etxeetara laguntzea, epaitegietara...).
- Bestelako ekimenak ere egiten dira; saio indibidualak, taldekakoak, topaketa ludikoak (liburu aurkezpenak, erosketak, museoak, lorategiak...), emakumeen arteko tutoretzak; egoeraren tratamenduan ezinbestekoak diren jarraitutasun tutoretzak.

Programa honen lorpenen artean kokatzen dira 3 urtetan 21 emakume formatu izana (batzuetan beste 6 emakume urtero) eta 80ri laguntza eman izana. Guztira indarkeria matxistaren 103 biktimek jaso dute arreta integrala. Formazio-taldea hasieran 8 emakumek osatzen zuten, gero 25 batu ziren zeregin honetara. Bigarren fase batean formatutako emakume hauek beste batzuk lagunduko dituzte eta indarkeria matxistatik ateratzeko euren bide pertsonal propioan aurrera egin ahala beste emakume batzuei ere lagunduko diete.

Beste alde batetik, aurten proiektuari hurrekin topaketak gehitu dizkiote -egoera ezagutu eta indarkeria egoera ez dezaten idealizatu- bai eta “Kontatu nirekin” boluntario sarearen egituraketa ere.

Entitatearen esperientzia ertaina da, baina hurrengo elementuak indargune direla baloratzen da:

- Emakumeen inplikazioa, konfiantza eta errespetu giroa, eta erritmo indibidualizatuak.
- Eraldaketaren aktore ezinbesteko bezala kokatzea emakumeak, dispositibo hori gabe ez baitzen programa garatuko.
- Beste entitate batzuekin koordinazioa.



Programan antzematen diren beharrak hauek dira:

- Finantzazioan jarraitutasuna eta programaren handitzea.
- Indarkeria matxisten gaian espezializatutako profesional kopurua handitzea.
- Detektatutako arazoak konpontzeko administrazio ezberdinen borondate eta konpromisoa.

## Indarkeria matxisten aurkako Erantzun eta Erresistentzia Sarea (RRR)

---

Sarea 2013ko otsailean sortu zen Madrilen, "Feminismos Sol" komisioak sustatuta, 2004ko Legean ikusten zituzten hutsuneei eta errealitateei erantzuteko. RRR sarearen ustez Lege hori ez da kasu guztietan ezartzen eta motz geratzen da, ez baititu beharrian guztiak aglutinatzen. Gainera, artikulazio handiagoaren beharra zegoen.

Horrela, ibilbide politiko ezberdineko emakume multzo anitz batek sustatu zuen sarearen sorrera (profesionalak eta aktibistak), indarkeria matxisten aurkako borrokaren mundu konplexuari erantzun politiko integrala emateko asmoz, uste dutelako sistemak kale egin eta patriarkatua aldiz mantendu egin dela edo eta aurrera doala; baliabide murrizketek eskubideetan eragina dutela eta indarkeriak jota (egon daitezkeen) pertsonak babesgabe daudela; hitzarmen patriarkal berriak eta diskurtso neomatxistak garatzen ari direla; emakumeen kalbarioa ezagun dutelako eta badakitelako Estatuaren makineria bere luze zabalean martxan jartzen dela.

Ezaguna da autoeraketan hamarkada luzez aritu diren emakumeen borroka antolatuaren gaitasuna feminismo ezberdinetatik erantzun eta erresistentzia ahaleginak indartzen. Horrela, dekalogo bat osatzen abiatu zen sarea, eta lehen urrats horietan RRR sarearen indarkeriaren gaineko definizioa zehaztu zen:

*"Patriarkatuan hegemonikoak ez diren genero eta sexu-identitateak dituzten emakume eta pertsonengan eragiten den dominazio, jazarpen, abusu, isolatze, mespretxu, bahiketa eta eraso fisikoko, psikologikoko eta sexualeko ekintzak eta diskurtsoak. Erreduktionista ez den kontzeptua aldarrikatzen dugu, ez da soilik bikote heterosexualen testuinguruan gertatzen dena, baizik eta beste espazio batzuetan eta lotura afektiboetatik kanpo gertatzen dena ere, indarkeria sinbolikoa, ekonomikoa edo eta trans pertsonen aurkakoa izan daitekeena bezala, seme-alabekiko garatzen dena, edo eta salerosketara behartzen dituztenek sufritzen dutena".*

RRR sarearen helburua politikoki eragitea da; indarkeria matxisten auzia oraindik ere estatuan konpondu ez den egiturazko arazoa dela salatzea. Estatuak garatzen duen indarkeria ikus-araztea eta berau arduradun egitea garrantzitsua dela uste dute.

Lege integralak ez zituen ezarritako helburuak bete, eta indarkeria matxisten kausa eta dimentsioen gaineko pertzepzioa eta bere erradikazioaren aldeko borroka anestesiatu ditu. Horregatik RRR sareak estatu mailako praxi txarrak eta beharrezko irmotasunik gabekoak agerian jartzen ditu, eta tratu-txar emailleek euren pribilegio juridiko eta politikoak mantentzea ahalbidetzen duten diskurtsoak seinatzen ditu. Era berean, krisiak instituzio eta botereen indarkeria matxistaren tratamenduan izan duen inpaktua salatzen



dute, zeinaren ondorioz arreta babesetik muturreko indarkeria fisikora pasa den, eskubi-deak eta baliabideak murriztuz.

Gainera, sarearen asmoa erasotzak errudun jotzen dituen, arazoa gutxien duen eta indarkeria bazterreko arazo txiki bat dela dioen "neomatxismoari" aurre egitea da. Bes-tetik indarkeria matxistei eta seme-alaben zein kideen babesgabetasuna handitzen duten egoerei aurre egin nahi die.

Hori dela eta 7 lantaldean egituratzen dira:

1. Komunikazioa: zabalkundeaz arduratzen da, antzeko borroka dituzten estatu zein lurraldeen arteko sareez, lengoiaren eraikuntzaz eta barne-komunikazioaz.
2. Norbere buruaren zaintza eta elkar-laguntza: emakumeen konpainiaz arduratzen da, autodefentsaz, eskubide-sexualez, norbere zaintzari buruzko formazioaz (eta di-bertitzeaz), indarkeria eta arrazakeriaz, eragite politikoaz, beste sareez ikasteaz eta irizpideak sortzeaz.
3. Ekonomikoa: erresistentzia kuxaren eta finantzaketa topatzearen arduraduna da.
4. Legala: kasuen informazioa sistematizatzeko arduratzen da, epaiketarako jarraibi-deez, praxi txarrez, etsaien estrategiez eta antzeko kasuen jarraipenaz.
5. "RRR Komando" ekintzak: delituen zabalkundeaz arduratzen da, tratu-txar emai-leak, estatua edo publizitate engainagarria salatze kanpainez, eta salaketa pu-blikorako kale-ekintzak egiteaz.
6. Informazioa-Sistematizazioa: indarkeria eta estrategia posibleak identifikatzeko ar-dura du, bai eta emakumeen istorioak jaso eta tresna informatikoak garatzeko ere.
7. Logistika eta baliabideak: entitate lagunekin, hurbil dauden gizon-taldeekin eta bes-telako kolektiboekin aliantzak egiteaz arduratzen da, bai eta "bizitza-oporraldiak" eta espazio segurua kudeatzeaz ere.

Lurralde Auzitegira zenbait emakume lagundu izan dituzte; beherapen garaian hiri erdi-gunean egindako arropa denden aurkako kanpainak bezalako kale-ekintzak egin... Kon-zientziazio politikoak eta emakume askok aurrera ateratzen dituzten borroka ikusezin asko erakusteak garrantzi handia du, nahiz eta esperientzia horrek desgaste handia eka-rrri zuen hasieran adostasunetara iristeko bilera asko egin behar izan zituztelako, mini-moen dokumentuak atontzeko, artikulazio egokiak osatzeko... Horren ondorioz emakume asko atzean geratu ziren.

Prozesu honetan hainbat erresistentzia topatu dira, hauek dira horietako batzuk:

- Klandestinitateaz hitz egin zenean (indarkeria sufritutako emakumeentzako "bizitza-oporraldiak") emakume eta kolektibo askoren erresistentzia eman zen, sistemak ez duelako babesten.
- Tor zerbitzari anonimoa edo Kune (beta fasean dagoen tresna oso segurua) bezalako tresnen bilaketa komunikazio segurua garatzeko Estatuaren eta erasotzaile talde an-



tolatuen aurrean. Formazio ordu asko inbertitu ziren horretan eta emakume kide askoren parte-hartzea oztopatu zuen. Ordu asko behar izan ziren antolatzeko.

- Instituzionala denaren eta autonomia denaren arteko erlazioa: nola parte hartu espazio "legetan",... Mota horretako gaiek hasierako ideia aldatzea eta beste bide batzuei heltzea eragin zuten.

RRR sareak prozesua oso esperientzia garrantzitsua izan dela uste dute, askotariko emakumeek, esperientzia zabala duten emakumeek batera osatutako desioetatik abiatu dena. Mardileko espazio feminista ezberdinetan parte hartzen dute eta emakume askorentzat ikastaldi ezin hobea izan da sarea, elkarren arten artikulatu eta PAH bezalako bestelako mugimendu sozialetara hurbiltzeko (ekimen bateratuak egiteraino) modua eman diena.

Esperientzia honek utzitako irakasgaien artean higadurak emakumeen zaintzarekiko izan duena nabarmentzen da. Baliabide eta indarrei neurria behar bezala hartzea falta izan da, urgentziak beste guztiaren gainetik jartzen ziren, erantzun azkarrak ematera behartuta, eta erritmoak emakumeen parte hartzea oztopatu zuen super "militantziagatik" edo eta espazio askotan parte hartzeagatik. Honek guztiak emakumeen bizitzak ezegonkortu zituen. Beste alde batetik, komunikazio estrategien falta handia egon da.

Hitzarmen patriarkalari "Etika Feminista"-ren bidez erantzun behar zaiola uste dute; guzti-errespetu eta begirada zabaltasunez jokatzeko ahaleginak eta ahalik eta inklusiboena izaten saiatu. Elkar-laguntza eta zaintza sustatu eta beste sareekiko artikulazio-zubiak irekitzea, komuna den horretatik eraikiz eta norberaren erritmoak errespetatuz.

## Ibilbide Judizialetan ahalduztzen

---

Urte guzti hauetan jakintzak josi dira, bat-egiteak eman eta gainera gabezia eta hobekuntzak antzeman dira. Hitzaldi honetan strategiari, komunikazioari, esparru juridikoari eta esparru akademikoari lotutako proposamenak mahai-gaineratu dira.

### Estrategia orokorra:

Errepresioarena bezalako bestelako sektore sozialetan gertatzen ez denaren kontrara, mugimendu feminista ez da ari behar bezala baliatzen urtez-urte pilatutako jakintza. Garrantzitsua da errepresaliatutako pertsonen senideek berriki osatu duten sareaz ikastea.

Lanabesei dagokionean, oinarritzkoak diren ezagutza legal batzuk daude emakumeen kolektiboek helarazi beharko litzaizkiokeenak gutxiegi erabiltzen direlako, izan maila lokalean zein nazioartekoan (CEDAW adibidez).

Ibilbide juridiko guztian instituzioak formalki interpelatzeko lehen mailako eragilea da mugimendu feminista; mediku eta forentseen kolegioa, demokraziaren aldeko epaileak, Europako instituzioak, nazioartekoak... Gaur egun interpelazio hauek defizitarioak dira, eragile juridiko oso argiak daude eta gabezia horien arduradunak ez dira atzamarrarekin seinalatzen. Erabiltzen ez diren zenbait baliabide dago, eta badaude neurriak eta pertsonak zeinekin lan egin ahalko litzatekeena. Talde-lan gehiago behar da, kolektibo juridikoen eta abokatuen arteko deskonexioa ematen baita.



## Komunikazio esparrua:

Komunikazio esparruan aintzat hartu beharreko hainbat proposamen eta gai dago:

- Adierazpen askatasunaren gaineko aholkularitza legala ezinbestekoa da (gaur egun mugimendu feministan ez dagoena). Horretan lagundu dezaketen ondo formatutako abokatuak daude inguruan.
- Esparru errepresiboan dagoeneko egiten den bezala, ikusgarritasuna eman behar zaie garaipen legalei eta mezuei. Emakumeen irudiak ezin dira soilik negatiboak izan, albiste txarrak baino ez zabaldu... Garaipenak zabaltzea garrantzitsua da ospatzeko motibo direlako. Komunikabideekin diskurtso bakarra adosteko lan egin beharra dago.
- Teknologia berriek (IKTek) eta lobby komunikatiboak epailetzako/fiskaltzako eragileak interpelatzeko aukera asko ematen dituzte... Bai eta diskurtso feminista ohikoak ez diren edo eta estrategikoak izan daitezkeen lekuetara eramateko ere. Nork ezagutzen du biktimaren estatutua adibidez? Ez da horrelako tresnen zabalkunderik egiten.
- Kanpainetarako irudimena bilatu beharra dago, "Campanya pel Tancament dels CIE" edo "Red antirumores" ekimenetan bezala; kolektibo migratzailearekiko asmo txarrez egindako diskurtsoak indargabetzeko lanabesak.
- Birjinak diren delitu berriak daude, eta bereganatu egin behar dira tendentzia hasieran bertan zehazten delako, eta gerora inertzietan erortzen delako.
- Komunikazioaren esparruan proiektu oso interesgarriak daude (PROXI bezalako proiektuak, zeinetan komunikabide digitalen bidez monitorizazioa egiten den migratzaileen eta ijitoen kolektiboan arreta jarritz).

## Maila akademikoan:

- Medikuek, forentseek, epaileek, fiskalek eta beste askok formazio gehiago jaso dezaten eragin beharra dago.
- Istanbulerako Hitzarmenak jasotzen duen formazioa ezartzea garrantzitsua da, baita hainbat kontzeptu behar bezala ezagutzea ere; indarkeriaren kontzeptua, indarkeria dinamikena, biktimologia...
- Testigantzaaren psikologia, emakumeen froga edo eta eragin post-traumatikoak bezalako tresnetan pentsatu beharra dago. Biktimologiak ez ditu indarkeria eta prozesu pertsonalak ulertzen. Esparru hauek probestu eta haietan eragin beharra dago informea hauek emakumeen sinesgarritasuna "minatzeko" balio dutelako.
- Salaketei buruzko eskuliburuak bezalako tresnak sortzea garrantzitsua da.

## Maila juridikoan:

Esparru juridikoan landu beharreko alderdi asko dago, baina batzuk nabarmentzen dira. Lehenik eta behin, kolektibo feministetan adostasunak erdietsi behar dira eta norantz jo nahi



den zehaztu -bakoitzak toki ezberdin baterantz egiten duelako "arraun"-; eta beraz, helburu argiak eta adostuak dituen estrategia juridikoa sortu beharra dago. Gaur egun ez dago esparru praktikoari begirako eragileen arteko aliantzarik: akademien artean, juristen artean... eta aliantza horiek onuragarriak izango lirateke. Legelari asko aspaldi hasi zen zuzenbidearen ikuspegia zabaltzeko berau berrinterpretatzen. Legea berrinterpretatzeko lan guzti hau anekdotikoa izaten ari da (Antípodas kolektiboa adibidez).

Gai zehatz eta espezifikoetara joz, "defentsa legitimoa" geure egiten hastea garrantzitsua litzateke. Tresna hau ez da erabiltzen oso maskulinoa delako, baina geureganatzeko modua aztertu beharra dago.

Esku-hartzerako tresnei dagokionean, hainbat proposamen nabarmentzen dira. Alde batetik, erabili beharreko oinarrizko lanabes bat "auzi estrategiko feminista" da, mugimendu ezberdinetan dagoeneko erabiltzen ari direna: LGTB mugimenduan, ingurugiroarenean, errepresiboan... Sinbolikoak eta aitzindariak izanik eskubideen zabalkunde bat ekarriko duten kasuak egon badaude. Beste alde batetik, lege lokalak aurreikusten dira, zeinen bidez administrazioak herri-akusazio bezala arituko diren edo eta akusazio partikularrak garatu ahal izango diren beste batzuen babesarekin.

Azkenik, abokatuek, komunikazioaren profesionalek eta bestelako eragileek koordinatuta lan egitearen garrantzia azpimarratu beharra dago. Horren adibide dira "mueren pocas" kasua, edo eta "la patada en la Diagonal"-ena...

Esparru juridikoan helburu orokorrak eta zehatzak proposatzen dira:

### Helburu orokorrak:

- Indarkeria kontzeptua esparru guztietan kokatu eta ikuspuntua zabaltzea (indarkeria matxistaren gaineko ikuspegi orokorra izatea eta ez gauza konkretu eta zehatz batena). Indarkeriaz ari garenean, epaile eta fiskalek ez dute zertaz ari garen ulertzen.
- Garrantzitsua da indarkeria instituzionalaz hitz egitea. Pedagogia judiziala gehitu beharra dago indarkeria matxistaren azken erantzulea Estatua dela nabarmenduz.

### Helburu zehatzak bitarteko zehatzen bitartez

- Feminizidoa kontzeptu bezala gehitzea (zenbait herrialdek kontzeptu hau jasotzen duten lege zehatzak dituzte, Latinoamerikako ikerketarako protokoloa kasu).
- Defentsa legitimoa tresna bezala erabiltzea (lehenago aipatu dugun bezala).
- Egon badauden bestelako esparruak ere lantzea; hala nola 510 artikulua (gorrotoa sustatzea) edo eta 22.4 larrigarria (Estatu Espainiarrean ez da kasurik eman eta Diagonaleko Ostikoaren auziarekin ahalegina egiten ari da).
- Istanbulerako Hitzarmena edo eta CEDAW bezalako eskubide berriak erabiltzea.
- Azkenaldian kalean zein IKTetan ematen den jazarpena (stalking) bezalako delitu berriak aldarrikatzen ari dira, lehen aurrera-pausua da hau.





- Biktimaren estatutu berriarekin lan egitea (2012ko zuzentaraua). Lehenengo aldia da biktimaren katalogoa ezartzen dena, emakumearen autonomiaz hitz egiten dena, babeserako neurriez...

## Istanbuleko Hitzarmenean<sup>33</sup> sakontzen eragite-politikorako lanabes bezala

Fórum de Política Feminista<sup>34</sup>-ko kidea den Nines Fidalgo<sup>35</sup>-k eskainitako tailerrean “Istanbuleko Hitzarmena” bezala ezaguna den Familia-indarkeriaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borroka eta prebentziorako Europako Kontseiluaren Hitzarmena sakonean ezagutzeko aukera izan genuen. Hitzarmena, zehatzean emakumeen aurkako indarkeria lan-tzen duen Europako lehen ituna da. 2014an sartu zen indarrean eta Espainiako Estatua hitzarmena betetzera behartuta dago.

Fidalgok eskainitako tailerrean Hitzarmenak garatzen dituen gaiak ezagutzeko aukera izan zen, eskaintzen dituen aukerak eta Hitzarmena bete dezan Gobernuari egin dakizkiokeen balizko eskakizunak baloratu ziren.



Ondoren, indarkeriaren gaiari buruzko diagnostikoa egiteko plataforma bat sortzeko aukera proposatu zen, egungo egoera salatzeko informe bat osatzea GREVIO-arentzako (Grupo de Expertos en la lucha contra la Violencia contra la mujer y la violencia doméstica).

## Prebentziorako eta eragite-politikorako estrategiak. Ekimenen azterketa

Azken mahai-inguruan eragite-politikorako estrategia ezberdinetan sakondu zuten

33 Istanbuleko Hitzarmenean sakontzeko dokumentua [www.mugarikgabe.org/rederradicacionviolenciasmachistas/wp-content/uploads/sites/2/2015/06/Convenio-Estambul-Nines-Fidalgo-2015.pdf](http://www.mugarikgabe.org/rederradicacionviolenciasmachistas/wp-content/uploads/sites/2/2015/06/Convenio-Estambul-Nines-Fidalgo-2015.pdf)

34 [www.forumpoliticafeminista.org](http://www.forumpoliticafeminista.org)

35 Nines Fidalgori egindako elkarrizketa ikusgai hemen: <https://vimeo.com/130958624>



hiru kide entzuteko aukera izan genuen. June Fernández<sup>36</sup> Pikara Magazine<sup>37</sup>-eko kideak komunikabideetan aliatuak topatzearen garrantzia azpimarratu zuen, eraldaketa sozialerako ezinbesteko aldagaia direlako; Josebe Iturrioz Emakumeen Mundu Martxa<sup>38</sup>-ko partaideak azaldu zuen nola lortu zuen mugimendu honek beste emakume kolektibo batzuekin batera indarrak biltzea; Noelia Landete<sup>39</sup> Fundación Aspacia<sup>40</sup>-ko kideak indarkeria matxisten aurka estatu mailako mobilizazio erraldoi bat Madrilan erdiesteko artikulatzen ari den topaketa- espazioaren berri eman zuen bere hitzaldian.

Hauek dira lau hizlariek nabarmendu zituzten ideiak.

## Indarkeriaren tratamendurako protokoloen ezarpena komunikabideetan

Komunikabideak estereotipo matxisten transmisore dira, baina era berean, eraldaketarako tresna ere izan daitezke. Hala ere, gaur egun komunikabideak ez dira ari icebergaren oinarri guztia erakusten, ez dute arazoa bere osotasunean azaltzen, ez zer gertatzen den ez eta hornn arrazoia zeintzuk diren ere ez. Genero indarkeria familian ematen den indarkeriarekin identifikatzen da oraindik ere, eta gertaeren atalean jasotzen dira gai honi lotutako albistekak.

90eko hamarkadaren bukaeran mugarri izan zen Ana Orantesen erailketa; komunikabideek ordura arteko trataera aldatu zuten Orantes komunikabideetan agertu zelako bere egoeraren berri emanez.

Komunikabideetan sarri ematen den eztabaida da ea indarkerien berri emateak ez ote dituen erailketa gehiago auspotzen. Carmen Vivesek baieztatzen du albisteari tratamendu sentsazionalista ematen zaionean imitaziorako efektua sortzen dela, baina aldez tratamendua azalpenezkoa baldin bada, erailketa kopuruak behera egiten duela, disuasio-eragina duela alegia.

2000 urtetik aurrera komunikabideek indarkeriaren gaineko tratamendu bateratu bat adosteko bat egin zuten: hiltzaileari justifikaziorik ez bilatzea, auzokideengana jotzearen arriskua, gaian adituak diren pertsonen iritzia bilatzea... Publico<sup>41</sup> egunkariak atondutako dekalogoan jasotako gomendio batzuk dira hauek. Beste komunikabide batzuk estilo-liburu bat dute; TVE-k adibidez gai sentiberen atalean kokatzen du. Lanabes asko dago. Lanabes horiek komunikabideetan nola ezarri da oraindik ere gainditu gabeko irakasgaia.

Beste arazoetako bat kazetaritza-langileen formazio eta espezializazio falta da. Egoerarik idealena langile guztiek Giza Eskubideen eta generoaren gaineko ikuspegi egokia izatea litzateke, gai transbertsalak direlako. Modu horretan gai guztiak, kirola adibidez, genero ikuspegi batekin lantzea erdietsiko litzateke eta ez soilik jendartearen atalean.

36 June Fernándezi egindako elkarrizketa ikusgai hemen: <https://vimeo.com/130958626>

37 [www.pikaramagazine.com](http://www.pikaramagazine.com)

38 [www.emakumeenmundumartxa.eus](http://www.emakumeenmundumartxa.eus)

39 Noelia Landeteri egindako elkarrizketa ikusgai hemen: <https://vimeo.com/130958628>

40 [www.fundacion-aspacia.org](http://www.fundacion-aspacia.org)

41 [www.mujeresenred.net/spip.php?article1290](http://www.mujeresenred.net/spip.php?article1290)



Esperientzia positiboak komunikabideko langile guztiak busti dituztenen kasuak dira. Euskadin, Eusko Jaurlaritzak sustatuta, protokolo bat atontzeko hainbat komunikabideetako langileak inplikatzeko lortu zen.

Emakundek gidatutako indarkeria matxistaren kode deontologikoa ere prestatu da. Prozesu interesgarria izan da, baina parte-hartze txikikoa. Tokian-tokiko kasu konkrituak aztertzen jarrita, bat ere borondaterik ez duten komunikabideak agertzen dira -El Correo bezala- Emakunderen deialdiari erantzun ere egiten ez diotenak; EITB prozesu bat gartzen ari da eta berdintasun zuzendari bat du baina tratamendua isolatua da, hainbat formatu lantzeko modura mugatuak; irudiak, edukiak... Baina behar bezala lantzeko ezinbestekoa da estereotipo sexista bat zer den jakitea. Kazetariak ere inplikatuta dira, eta lana interesgarria da helburua betetzen denean. Formazio honetarako kazetariak eguneroko lanaz liberatu izanak asko lagundu du.

Hala eta guztiz ere, momentu ona bizi dugu. Komunikabide guztietan gurekin lan egiteko prest dauden aliatuak baitaude.

Gainera krisi testuinguru honetan irismen handia duten proiektu berriak daude mahai-gainean. Diario.es adibidez. Matxismoak salatzen aukera ematen duen mikromatxismoei buruzko blog honek hainbat lorpen erdietsi ditu (El Corte Ingles publizitate matxista kentzera behartzea adibidez). Komunikabide alternatiboak gero eta urrunago iristen ari dira.

Proposamen zehatzak hauek egin dira:

- Beste indarkeria mota batzuk ikusgarri egitea, albisteak Legeak jasotako bikote/bikotekide ohien arteko harremanetan ematen den indarkeriara mugatzen direlako.
- Poliziaren prentsa-bulegoekin batera lan egitea, hauek direlako gero komunikabideek modu ez-kritikoan erabiltzen dituzten datuak zabaltzen dituztenak.
- Indarkeria matxisten artean lesbofobia jasotzea.
- Prentsa datu-basea atondu: hainbat erakundek badute bat; bilgune feministak, Emakundek...

Pikara Magazineko kideek komunikabideek testuingururatzeko lan bat egitea sustatzen dute; gauzak zergatik gertatzen diren kontatzea alegia. Eguneroko indarkeria azaldu behar dute egiturazko indarkeriak ulertu ahal izateko: memoria berreskuratu bestelako memoria eta erreparazio prozesuetan egiten den bezala; bai eta despersonalizazioa ekiditeko biktimari izen abizenak eta bizi-proiektua jartzea.

## Mobilizazioa: Indarkerien aurkako martxa

---

Indarkerien aurkako martxa (Marcha contra las violencias)<sup>42</sup> ekimena Valentziako kideek

<sup>42</sup> [www.facebook.com/Marcha-contra-las-violencias-machistas-774273082679619/timeline](https://www.facebook.com/Marcha-contra-las-violencias-machistas-774273082679619/timeline)



sustatu dute. Otsailaren 28an Valentziako Emakumeen Koordinadorak estatuko erakunde feministak deitu zituen haserrearen eta salatze gogoaren alde Madrilerara arteko mar-txa bat antolatze gogorik ba ote zen ikusteko. Proposamenak aurrera jarraitzen du, eta data eta leloa zehaztuta daude: Azaroak 7, "Indarkerien kontra". Gainera, azaroaren 7aren ondoren erkidego bakoitzean egin daitekeenaren inguruko proposamenak ere ga-ratu dira.

Mugimendu feministak antolatutako martxa honen bitartez indarkeria matxisten aurkako alderdi politikoaren konpromisoa lortu nahi da. Era berean, alderdiek ekimena bereganatze-ko saiakerak saihestea adosten da.

Oraindik ere lantzen ari den eta urte bukaeran gauzatuko den ekimen honen indarguneak eta ahuleziak azpimarratzen dira.

Alderdi positiboak:

- Estatu mailako lehen manifestazioa da: indarkeria onartzen ez denaren mezua za-balduko da jendartean eta alderdi politikoetan.
- Elkar-trukerako eta eztabaida orokorrerako espazioa bat izango da.
- Indarkerien aurkako borroka jendartearen borroka orokor bilakatu nahi da, eta hau prebentzio eta babes neurri garrantzitsua da.
- Lurralde bakoitzean gertatzen denaren berri izan eta azterketa sakon bat egitea proposatzen da.
- Ekimena babesteko nazioarteko sareak aktibatze asmoa dago; indarkerien ar-buioa modu publikoagoan egin behar dela uste baita.
- Ekimenak estatu mailako sareak sustatzen ditu.
- Martxaren diskurtsoa bera eraikuntzan dago.

Arriskuak, ahulguneak:

- Lanerako inplikazio falta dago, estatu mailako ekimenak antolatzea neketsua da.
- Arriskutsua da martxak parte-hartze txikia izatea, baina ez du ematen hala izango denik.
- Klase politikoak gaizki interpretatzea ekimena; jadanik legeetan jasotako ezart-zeko eskaera dela ulertzea. Zabaldu nahi den mezua arreta indarkeria guztietan jartzeko beharrarena denean.
- Eduki nahikorik ez izan eta elkar-ikusteko ekimen batera mugatzea. Guztiarekin ados egon ez arren, ekimena edukiz beteta egotea garrantzitsua da.
- Militantzia bikoitzak: "agenda bikoitzekiko" eta "agenda ezkutuekiko" mesfidantza dago.



Ekimenaren antolaketan ari direnek diskurtsoa osatzeko aliantzak eskatu dituzte, bai eta martxan parte hartzea, erakundeen arteko zaintza eta errespetua ematea eta ekimenaren berri ematea ahalik eta jende gehienak parte hartu eta oihartzuna izan dezan.

## **Emakumeen Mundu Martxa nazioarteko sare bezala eta ekinbiderako protokoloak Euskal Herrian**

---

Munduko Martxa izugarri “trans” da, transnazionala delako; patriarkatuari aurre egiteko estrategia globalak sustatzen dituzten mundu guztiko askotariko emakumeak dira.

1995ean egindako Ogia eta Larrosak (Pan y Rosas) mobilizazioan 15.000 lagunek hartu zuten parte. Ordutik egiten dira martxak. Euskal Herrian 2000 urtean hasi ziren munduko martxetan parte hartzen. Martxa ez da Espainiatik pasatzen, bai aldiz Galiziatik, Euskaditik eta Kataluniatik. Orain Espainiako beste lurralde batzuk ere inplikatzeko lan egiten ari da, Madrilako emakumeak ere ekimen honetara bildu daitezzen.

2015 urte honetan martxari “karabana feminista” deitu zaio. Martxoaren 6an Kurdistanen abiatu zen eta abenduan amaituko da Portugalen. Ibilbide guztian egiten zaio jarraipena, eta lurralde batzuetan oso harrera ona du eta besteetan aldiz ez horrenbeste. Euskal Herrian oihartzun handia izan du. Martxaren helburuetako bat herrietan sarea jostea da; martxa euren herritik pasa dadin gogoak adierazi dituzten herrietatik furgoneta pasatzen da herri horietan ekimenak pizteko.

Gainera, Euskal Herrian Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxak sortutako indarkeria matxisten aurkako protokoloa dago. Uda eta opor garaian ekintzak antolatzeko lana bes bat eskaintzen da.

Martxak piztutako ekintza-urte honetan egindako ekimenetako bat sinbolikoa izan zen: ereitea. Euren gorputzen autogestioaren aldeko aldarrikapena izan zen, euren aldarrikapenak ereitea, elikadura burujabetza... Martxa Euskal Herrian herriz-herri joan ahala jendeak berarekin bat egiten du. Ereitearen ekimena azaltzeko bideo bat prestatu da, gauzak ez ezik, kontzeptuak, aldarrikapenak eta bestelakoak ere ereitera gonbidatuz jendartea.

Lesbianen aurkako errepresioa dagoen herrialdeetan martxa ere lesbianizatzen ari da, ikusgarri egiteko helburuarekin. Indarkeria matxistaren begirada zabaldu beharra dago: kide homosexual bat edo trans bat erailtzea indarkeria matxista da. Definizio heteropatriarkalarekin hautsi beharra dago. Arrazismoaz, adultismoaz, transfobiaz, lesbofobiaz, kolonialismoaz, mendebaldekeriaz... hitz egin beharra dago diskriminazio gurutzatuez ari bagara. Hainbat mugimendu feministetan trans esparrua barnean edo kanpoan egon behar ote den eztabaidatzen ari dira. Gai guzti hauetaz ikuspegi politiko batetik hitz egin beharra dago, eta ez esentzialistotik.

Martxak aliantzen kudeaketa sustatzen du: ez dira eurekin batera antolatzen diren migratzaileak, ez eta trans-ak... askotariko emakumeak dira. Ez dago Mundu Martxa bezain anitza den espaziorik.

Ekimen gehienak irailari begira antolatzen ari dira, Karabana Feminista irailaren 28tik urriaren 4ra egongo baita Euskal Herrian.



## Sare sozialen erabilpena salaketa eta eragiterako tresna bezala

Pikara Magazine-ko June Fernándezek sare sozialek jendartea indarkeria matxisten aurka mobilizatzeko duten ahalmenaren inguruko jakintzak eta esperientziak partekatze tailerra eskaini zuen sareak ekintza feministak dokumentatzeko edo eta lobbyak egiteko irekitzen dituzten aukerak ikusita. Tailerrean praktika onak aztertu ziren kanpaina digital on eta koherenteak diseinatze gakoak eskainiz.



## Feminizidioen<sup>43</sup> kartografiak, gizarte zibilak instituzio publikoen jarraipen eta kontrola egiteko tresna

Graciela Atencio<sup>44</sup> feminicidio.net<sup>45</sup> ekimena kudeatzen duen Otro Tiempo<sup>46</sup> erakundeko kideak zuzendutako tailerrean landu zen gai hau. Ariketa, feminizidio mota ezberdinen ezagutzatik abiatuta, terminoa ikuspegi global batetik jendarteratzean kokatu zen, eta Estatu Espainiarrean gizarte zibilak dokumentatutako feminizidioen kartografiak aztertu ziren.

43 Feminizidio kontzeptuan sakontzeko dokumentua: [www.mugarikgabe.org/rederradicacionviolenciasmachistas/wp-content/uploads/sites/2/2015/06/DeclaracionVIIConfFeminicidioRecomenCumbreUECELAC.pdf](http://www.mugarikgabe.org/rederradicacionviolenciasmachistas/wp-content/uploads/sites/2/2015/06/DeclaracionVIIConfFeminicidioRecomenCumbreUECELAC.pdf)

44 <https://vimeo.com/130958627>

45 [www.feminicidio.net](http://www.feminicidio.net)

46 [www.otrotiempo.org](http://www.otrotiempo.org)



### III. KAPITULUA: AURRERA EGITEN JARRAITZEN DUGU



Urtebete baino gehiagoko lana ekarri duen prozesuak hainbat helburu izan ditu: alde batetik Espainiako Estatuan indarkeria matxisten egoeraren azterketa eta diagnostikoan sakontzea, eta bestetik esparru ezberdinetatik indarkeriei aurre egiteko estrategiak elkar-banatu eta hauetan sakontzea, eragite-politikorako kolektiboen arteko aliantzak josteko espazioak eraikiz.

Argitalpen honetan ikusi ahal izan dugun bezala, indarkeria matxisten gainean parte hartze handiko diagnostikoa osatu da hilabete hauetan lurralde ezberdinetako esperientziak jasoz. Diagnostiko hau osatzeko zereginera estatuko 100 kolektibo baino gehiago bildu dira, nagusiki talde feministak. Espazio hauetan elkar-topo egin eta ezagutu gara, eta aliantza lana egiteko ezinbestekoak diren oinarriak elkar-banatu eta konpartitu ditugu ere. Honen guztiaren emaitza jakintza eta esperientzien eraikuntza eta zabalkundea izan dira; eztabaidak, bideoak, tailerrak, mahai-inguruak, agiriak eta bestelako euskarriak partekatu ditugu, eta ikusgarritasuna eman zaie sare-sozialetan, prentsan, artearen esparruan edo kalean garatzen diren proposamen feministei.

Prozesu hau baina, ez da hemen bukatzen. Argitalpen hau puntu eta jarrai bat da, espazio hauetan parte-hartzeko, zabaltzeko eta lantzen jarraitzeko ekimen eta proposamenak mahai-gaineratu baitira -indarrean dauden batzuk eta berriak diren beste batzuk-. Eztabaidetan aurrera egin eta proposamen feministei ikusgarritasuna emateko prozesuan erabili eta landutako material guztia zabaltzeaz gainera, erronka aliantzak sendotzea ere bada, esparru ezberdinetan proposatutako estrategia asko eztabaidatzen eta zehazten jarraitzeko ezinbestekoak baitira inolako zalantzarik gabe (mobilizazioak, auzi-estrategikoak, Istanbulko Hitzarmenaren jarraipena, aldaketa normatiborako proposamenak, hauteskunde hitzarmenak, erreparazioa...).

Prozesu honetan aurrera jarraitu ahal izateko, parte-hartu dugun pertsona eta erakunde askok **“Emakume ugari borrokalari”** Adierazpena ezagutzera eman nahi dugu. Adierazpen honetan, eragile publiko eta sozialei zein jendarte orokorrari helarazi nahi dizkiogun salaketa eta exijentzia nagusietako batzuk jaso nahi izan ditugu.

Jarraian atxikitzen dugun adierazpena publikoki aurkezteaz gainera, indarkeria matxisten aurkako borrokan esanguratsuak diren hainbat instituzioei emango zaie indarkeria matxistari gabeko bizitzarako eskubidea bermatu dezaten exijituz.

Prozesu honek aurrera jarraitzen du bertan egindako proposamenekin, egunero-egunero milaka emakumek eta zenbait gizonek maila lokaletik globalera, pribatutik publikora indarkeriarik gabeko bizitza izateko euren eskubidea aldarrikatzeko egiten duten salaketa, eragite eta borroka-lanarekin batera.

Aurrera egiten jarraitzen dugu... emakume ugari garelako borrokalari!!!



# EMAKUME UGARI BORROKOLARI

2015eko iraila

Guk, emakume eta kolektibo ezberdinak, eremu juridikokoak, hezkuntzakoak, osasungintzakoak, internazionalismokoak, legegileak, zuzeneko arretakoak; emakumeen taldeak eta talde feministak zein mistoak, egunez egun modu ezberdinetan indarkeria matxista errotik kentzeko lan egiten dugunak, profesionalki eta aktibista gisa bizitako esperientzietatik honakoa **ADIERAZTEN DUGU**:

## EGOERA HAUEN AURREAN

**Indarkeria matxisten ikusgarritasun eza** lehen mailako arazo politiko eta sozial gisa,

**Sistema patriarkatua eta kultura matxista** seinalatzearen ausentzia, indarkeria estrukturala eta desberdintasun orokorraren kausa gisa,

Aurreiritzi eta estereotipoen **erreproduktzio jarrai eta zigorgabea** (salaketa faltsuak, Senideekiko Alienazio Sindromea, adostu gabeko zaintza partekatua...) espazio politikoetan, sozialetan eta kulturaletan, eta komunikabideetan,

Indarkeriari aurre egiten dioten **emakumeen estigmatizazioa** (erruduntasuna, estereotipoak...),

**Indarkeriaren analisi globalaren falta**, bikote eta bikotekide ohien arteko indarkeriara mugatuz, beste indarkeria batzuk alboratuz (sexuala, laborala, instituzionala, salerosketena, emakumeen genitalen mozketak...), errealitate zehatzak eta diskriminazio intersektzionala aintzat hartu gabe (aniztasun funtzionala, jatorria, klasea, orientazio sexuala, adina...),

**Inpunitatea**, lege egokien existentzia eza, baita egungo legeen aplikazio erreal eza ere, botere publikoen inplikazio eta erantzun egoki faltagatik. Baita araudi eta aurrekontuen garapen, ebaluazio eta legeen jarraipen eskasa ere,

**Arreta eta baliabide juridikoak**, deskoordinazioa, langileen espezializazio eta formakuntza jarraitirik gabe. Eta burokratizatutako baliabideak, haien fokua ez baita eskubideen jabe den emakumea, protokoloak baizik, interbentzio markoetan ez dute ikuspegi feministarik, emakumeak berbiktimizatzen dituzte, indarkeria instituzionala sortuz,

Emakumeekiko aurreiritziak erreproduzitzen dituen **justizia sistema**, haien eskubideen bermea sendotu beharrean berbiktimizatzen dituelarik,

Feminizatutako **arreta zerbitzuak**, egoera prekario batean, masifikatuta egonik geroz eta gehiago kanpotik bideratzen direlarik,

Hezkuntzako maila guztietako berdintasun defizit handiari eta komunikabideei lotuta dagoen eta existitzen den **indarkerien prebentzio falta**. Eta integraletik gutxi duten epe motzeko estrategien eta ekintzen aurrean, taldeen aniztasunari egokitutako metodologiarik eza, ez baitute indarkerien zikloen konplexutasuna ikusgarritzen.



## EXIJITZEN DUGU

Instituzio publikoen eta agente sozial guztien **konpromiso politikoa** indarkeria matxistei lehen mailako arazo politiko eta sozial gisa erantzuteko,

Indarkeriaren **definizioa** ikuspuntu feminista eta giza eskubideen ikuspegitik berrikustea, indarkeria modu eta forma guztiak txertatuz, pairatzen duten kolektiboen aniztasuna barne,

**Inpunitatearen** amaiera, fokua indarkeriaren bidez emakumeen eskubideak urratzen dituzten erasotzaileengan jarriz, eta ez emakumeengan bakarrik,

Genero indarkeriaren aurkako Babes integraleko Neurrien Lege Organikoaren **berrikuspena, aplikazioa eta araudiaren garapena**, baita lurralde edo nazioarte mailakoena ere (Estambulako akordioa eta Emakumeen Institutu Nazionalarena kasu), eremu guztietan (ez soilik juridikoan eta arretan), berdintasuneko beharrezko erakundeen egokitzapena, aurrekontu eta baliabide espezifikoeekin hornituz,

Berdintasuna ezinbesteko oinarritzat duten **hezkuntza legeen aplikazioa**, prebentziorako oinarri basikoa, garatzeko beharrezko aurrekontua eskainiz,

**Konponketa eskubidearen** lau elementuak bermatzea: indemnizazioa, ez errepikatzeko bermea, errekupeazio totala, asebetetzea eta egiarespen zabalpena,

Ikuspegi feministadun **espezializazio eta formakuntza** inplikaturako langile guztiengan. Baita haien ardurak betetzeko exijentzia eta laguntza ere, haien lanaren **aitortza** eta haien zainketa-aren garrantzia barne,

Arreta integrala eskaini eta emakume guztiak ahaldunduko dituen **baliabide eta zerbitzu publiko eta kalitatezkoa**, eskubideen subjektutzat aitortuz, zerbitzuen erabiltzaileen rola-aren aurrean aldatetaren protagonista izateko,

**Kontuen errendizio eta gardentasuna** politikak eta legeak aplikatzerako orduan, inplikaturako zerbitzu guztien erabilera eta garapena, eraginaren ebaluazioaren bidez, ikuspegi feminista eta parte-hartzailean erakunde feministak eta kaltetutako pertsonak inplikaturako dituenak, gutxienez,

**Komunikabideak** estereotipo matxisten transmisore izateari uztea indarkeriaren problematika eta kausa guztiak azalduz, eta indarkerien kontrako eredu parekideen sortzaileak bihurtzeko aukera edo ardura haien gain hartzea,

**Prebentzioa** lehenetsun politikoa izatea, indarkeria matxisten konplexutasunari erantzutea, modu eta berau probokatzen duten kausa guztiak landuz, egungo egoera alor guztietan urgenteki aldatzeko helburuarekin eta botere publikoei indarkeriaren forma guztiak errotik desagertaraztea exijituz.



**MUGARIK GABE**  
[www.mugarikgabe.org](http://www.mugarikgabe.org)

**¿Qué mundo  
queremos?**

hitzeak de seres, y no de teneres  
zein izakiek, de **mujeres**  
ez edukitzeak, osatzen dutena, libres

Zure ekarpenari esker lanean jarraitzen dugu.

Mugarik Gaberekin kolaboratu dezakezu  
urteroko kuota batekin,

diru dohaintza puntualekin edo elkartasun legatu batekin.

Horrela, hezkuntza eta lankidetzarekin bitartez,  
pertsona guztientzako justua den mundu baten alde  
egingo duzu.



Diru-sartzeak web gunean edo honako kontuan:

LABORAL KUTXA ES71 3035 0083 22 0830701234

Gran Vía 1 (Bilbao)





MUGARIK GABE

Organización No Gubernamental de Desarrollo  
para el Desarrollo Humano, Social y Ambiental

Declarada de Utilidad Pública